

KOMIKIAREN LORALDIA

EUSKARAZKO
KOMIKIGINTZAREN
EKOIZPENA BIKOIZTU
EGIN ZEN 2022AN.

► 22 Gorka RUBIO | FOKU

DATORRENA

Abiadura handiaren
gainean akats
gehiago ez egitea

MAITE UBIRIA BEAUMONT ► 3

PANTAILA

TXIKIAN: Eta
udaberrian, zer? ► 4





Armada ezkutua: emakumeek erresistentzian izan zuten garrantziaren hiru adibide 04

Ikusmira: Aurpegi ilunak akordio pozgarria sinatzeko 07

Pobreziaren ondorioak: Nigerreko hamar haurretatik lau ez dira erregistratzen 08

Kirol egokituaren aukera loraldiak baliabideak ere behar ditu 12

Pantaila Txikian: Eta udaberrian, zer? 17

Euskarazko komikien argitalpena bikoiztu egin zen 2022an 22

In Fraganti: Daniel Burgi Iguskiza 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 Maite Ubiria Beaumont:

Abiadura handiaren gainean akats gehiago ez egitea

10 Ula Iruretagoiena Busturia:

Arkitekturaren etika

11 Pello Otxandiano: Bi norabide

16 Unai Gaztelumendi

20 Beñat Gaztelumendi:

Nire barruko soziolinguista

21 Iker Barandiaran: Baloia norantz?

26 Oihane Larretxea de la Granja:

Azken-aurrena

26 Koldo Sagasti:

Babesleengandik babes gaitzen

30 Garazi Goia: Ezinezkoa

dirudien hori



{ datorrena } Maite UBIRIA BEAUMONT

Abiadura handiaren gainean akats gehiago ez egitea

Atlantikoko Arkoaren bertsio murriztua aurkeztu berri dute, Iñigo Urkullu anfitrioi zela, Ajuria Eneko bilkuran. Bazuen lehen-dakariak, prisma zabalduz gero, Espainia eta ozeanoaren artean betiere ozeanoa hautatuko lukeen Portugaleko lurraldeari begira jartzea. Bazuen, etxetik hasita, Atlantikoko seme txikia den Kantauri itsasoak Lapurdiko kosta bustitzen duela probestuta, Euskal Elkargoko lehendakariari, Jean-Rene Etchegarayri, mahaian esertzeko gonbidapena luzatzea. Bazuen, historiara joaz, Nafarroa “maritimari” keinu egitea. Aukerak bazituen, hala nahi izanez gero, baina lehendakariak antxoia ikur gisa har zezakeen erki-degoen gailurra antolatu zuen. Alegia, itsaso zabalean jokatu ordez, europar herrialde gisara jokatu ordez, espainiar Estatuak eskainitako lata batean, estu-estu bada ere, bere lidergoa olioztatu zuen.

Portugaletik hasita, espainiar hiruburutik pasatuz Europako zentro-iparraldera trenbidez lotura egiteko egitasmoa tiraderan sartu zuen aspaldi Lisboako Gobernuak. Austeritate politikaren testuinguru ilunean harturiko deliberoan atzera ez dute egin geroztik portugaldarrek eta Galiziarekiko loturak hobetsi dituzte Madrilera azkarrago joatearen ordez. Portugalen agintzen duen zentro-ezkerreko Gobernuak ez badu gustuko, Aturri ibaiaren ertzera so eginez gero, hiru probintzietako agintaria ohartuko litzateke luzamenduaren politikari ez diotela beldurrik Ipar Euskal Herriko agintari zentristek.

Atlantikoaren bestaldean bankuak berriz ere dar-dar hasi diren garaian, Bidasoaren iparraldean 30 urte atzerago gertatu zen mugimendu sozialak oparituriko ikasgaia aintzat hartzea ez da sobera. “Slow” joera asmatu aitzin, abiadura zentsudun batean joanez bidaia askoz seguruagoa zela erakutsi zuten AHTren aurkako dinamika zibila errailetan eman zuten herritarrek.

Inoiz guztiz alboratu ez badu ere –ezta oraingoan ere–, luzamenduetan dabil aspaldi frantses Gobernuak abiadura handiko lerro berria Bordeletik behealdera eramateko egitasmoari dagokionez.

Horrendako gutxiago ulertzen da, abantzu “espainiar independentziaren gerra” ren hizkuntzari ohore eginez, Galizia, Asturias, Kantabria eta EAEko lehendakariak «frantses malapartatu horiek» gaitz ororen iturri gisa bihurturik asmatu duten “lobby atlantikoa”.

‘Napoleon berria’-k, Eliseora heldu zenerako, 2017an, lau haizeetara zabaldu zuen abiadura handiko sarea etengabe zabaltzeko aroa amaitua zela. Memoria freskatzearren, ordurako aitortu gabeko moratoria indarrean zen Lapurdi zeharkatuz Hendaia eta Irun arteko muga bilakatuko zuen trenbide berriari buruz.

Ehunka hautetsik babestu dute Irungo alkate sozialistak, Baionako auzapez zentristak eta Bordeleko udal agintari ekologistak gaur egungo trenbidea modernizatzearen alde eginiko deia

Nola hartu ustekabean, beraz, 2042ko data-helmuga berria, ikuskaritza independente guztiek gezurtatu badi-tuzte Parisek lerro berriari egotzi zizkion onurak, merkantziak errepideetatik kentzeko Lakuako Gobernuak berak elikatu zuen mitoa barne? Horri gehitzen bazaio azpiegituraren kostu zati mardulena lurralde kolektibitateen esku uzteko Estatuak agertu duen asmoa, hobeto ulertuko da Ipar Euskal Herrian izandako bilakaera.

Jeloskorkeriak ez luke oztopatu beharko esku balazta jotzea Bidasoaren hegoaldean ere. Atzerapenez atzerapen eta gainkostuz gainkostu, badakigu dagoeneko batez besteko abiadura handiko kilometro gehien izanda ere espainiar Estatua ez dela Norvegia bilakatu. •



Odette Niles, laugarrena
eskuinetik, bigarren
lerroan, La Lande
kanpoan, 1942an.
ALAINN JOCCARD | AFP

Odile, Odette eta Michele dira haien izenak... Bigarren Mundu Gerran borrokatu zuten hiru emakume frantziar, hiru profil desberdin, baina funtsezko puntu komun bat dutenak: nazien aurkako erresistentzia «nahitaezkoa» zen bakoitzarentzat.

Hor daude Odile de Vasselot, bizitza Saint-François-Xavier Komunitate Apostolikoan eman duena, Odette Niles, marxista gaztea, eta Michele Agniel, arriskuari ez ikusiarena egin zion bigarren hezkuntzako ikasle abertzalea.

Orain 101, 100 eta 96 urte dituzte, hurrenez hurren. Hiru heroi xume, publiko zabalarentzat

ARMADA EZKUTUA

Emakumeek erresistentzian izan zuten zeregin isilduaren hiru adibide

 **HISTORIA / GAUR8**

Barne-erresistentzia ez zen inoiz existituko haiek gabe. Armada ezkutu bateko soldadu ezkutuak izan ziren. Emakume ikusezin horien ausardia-ekintzak sarritan gutxietsi edo erabat ahaztu izan dira, baina hiru heroi xume hauek bezala –Odile, Odette eta Michele–, milaka pertsona anonimok zeregin nagusia izan zuten.

ezezagunak, baina Alemaniako okupatzailearen aurka, milaka pertsona anonimo bezala, zeregin nagusia izan zutenak.

Barne-erresistentzia emakume hauek gabe inoiz ez zen existituko: mekanografoak, irrati esatariak, kontaktu agenteak, prentsa klandestinoko arduradunak, ihes egindako soldaduen eskoltak, makien hornitzaileak, espioiak, batzuetan ehunka gizonak osatutako sareen buruak...

«Berehala esan genion elkarri 'zerbait' egin behar genuela. Benetan ez genekien zer, baina nahitaezkoa zen», laburbildu du Odile de Vasselotek.

«Ezin zen ezer egin gabe geratu svastikarekin zintzilik zeuden pankarta handi horiekin, alemanezko karteekin...», esan dio AFPri Frantzian zehar ihes egindako presoan edo hegazkin-pilotu aliatuen lotura-ofiziala eta garraiatzailea izandakoak. Atxiloketatik behin eta berriz ihes egiten.

Eta zer gertatzen da beldurrarekin? «Ez naiz oroitzen arriskuaz benetan jabetu ote nintzen», dio Odette Nilesek. «Beldurra bigarren mailakoa zen, ez genuen horretan pentsatzeko astirik», dio barrez Michele Agnielek.

HISTORIAN AHAZTUAK

Emakume ikusezin horien ausardia-ekintzak sarritan gutxietsi edo erabat ahaztu izan dira. Historiak, lehenik, Erresistentziaren ikuspegi gerrazale eta maskulinoa loriatu du. Armada bateko ezkutuko soldaduak, armada bera ere ezkutua zela...

«Erresistentzia-mugimenduetan emakumeen proportzioa % 12 eta % 25 artean kalkulatzen dugu, baina kopuru hori oso engainagarria da», adierazi du Laurent Douzou historialariak, Bigarren Mundu Gerran adituak. «Haien kopurua eta zeregina mekanikoki murrizten dira homologazio prozesuan; emakumeek joera txikiagoa dute egindakoa erreklamatzeko», esan du.

«Nire erresistentzia oso apala zen, oso arrunta, margariten arrasean» dio, adibidez, Odile de Vasselotek berak, garrantzia kendu nahi balio bezala.

Erresistentziako gerrillari moduan armak eskutan zituztela jardun zutenak identifikatu ohi dira. Erresistentziako dominadunen artean %8,6 baino ez da emakumezkoa, eta soilik sei emakume izendatu dituzte 'erresistentziako kide' 1.038 gizonen artean.

«Erresistentzia zibilak, neurri handi batean emakumeen lana izan zenak, ez zuen ziurtagiririk sortu», azaldu dio AFPri Vladimir Trouplinek, Askapenaren Ordenaren Museoko kontserbatzaileak.

«Horrek garai hartako emakumeen egoera ere gogorarazten du. Ez zegoen lehen lerroan jartzerik», gaineratu du. Horrek, aldiz, balioa izan zezakeen ekimen klandestinorako. Okupatzaile alemanek, gerraren ikuspegi konbentzionala izanik, luzaz ez zuten emakumeekiko mesfidantzarik izan eta lehenik gizonak ehizatze joera zuten.

Emakume ikusezin horien ausardia-ekintzak sarritan gutxietsi edo erabat ahaztu izan dira; historiak, lehenik, Erresistentziaren ikuspegi gerrazale eta maskulinoa loriatu du

Mekanografoak, kontaktu agenteak, prentsa klandestinoko arduradunak, iheslarien eskoltak, makien hornitzaileak, espioiak, ehunka gizonak osatutako sareen buruak...

Odile de Vasselot,
Parisko etxean.
ALAIN JOCCARD | AFP

«Askoz gutxiago ikusten gintuzten, ez zuten susmo txarrik gutaz», baieztatu du Michele Agnielek. Nerabe ze-

la, hegazkin-pilotu estatubatuar eta britainiarren bila joaten zen probintzietara, Parisera trenez eramateko.

Hala ere, oso prezio altua ordaindu zuten: Michele, adibidez, amarekin batera, Alemaniara deportatu zuten. 6.700 emakume deportatu zituzten Frantziatik, anexionatutako eremutik kanpo.

1914-1918ko gerran ere garrantzi handiko eginkizuna izan zuten arren, Frantziako emakumeek adingabe zibilak izaten jarraitzen zuten artean.

Erresistentzian parte hartzea erabakigarria izan zen 1944an botoa emateko eskubidea lortzeko.





Michele Agniel,
erresistentziako kidea,
gerra garaian ezkerrean
eta gaur egun,
eskuinean.
Alain JOCARD | AFP



«EZ DUZU ISILIK EGOTEKO ESKUBIDERIK»

«Ez duzu jada isilik egoteko eskubiderik», esan zion behin amak, Holokaustoaren ukazioaren gorakadaren aurrean. Michele Agniel frantziarra horrela hasi zen kontatzen gerraren, erresistentziaren eta Ravensbrückeko (Alemania) deportazioaren inguruko historia.

1940ko udan 14 urte besterik ez zituen, baina alemaniar okupatzaileei ezetz esatea nahitaezkoa zen berarentzat. Uniformeak nonahi Parisen, nazien banderak eraikinetan, Radio Paris propaganda kolaborazionista zabaltzen... Hiriburura itzultzea kolpea izan zen.

Familiak, gerraren hasieran, Fort-Mahonen hartu zuen babesa, Frantziako ipar-mendebaldean, eta Petain mariskalaren derrotismoa eta armistizioa arbuiaitu zituen. Jakina, De Gaulle jeneralaren atzean lerrokatu zen gero, hark Erresistentziaren lidergoa hartu zuenean, 1940ko ekainaren 18an Londresko irratian egindako lehen hitzaldian. «Gure aitek berehala esan zuen 'zerbait egin behar dugu'. Etxean guregan guztiongan durundi egin zuen esaldi hark», adierazi du

Michele Agniel 1926ko ekainaren 11n jaio zen, Parisen, eta hurbileko aldirietan hazi zen, Saint-Manden, katoliko sutsuen familia batean: «Erabat abertzaleak», «boltxebismoa zein nazismoa arbuiaitzen zituzten».

Jatorriz nederlandarra zen aita, Gerard, eta Baloreen Burtsan egiten zuen lan. Alemaniaren aurkako 1914-1918ko gerrako beteranoa zen, Philippe Petain 20 urte

geroago Verdungo Bataillako (1916) heroi izaten jarraitzen zuenaren aginduetara ibilitakoa.

Neskarentzat, alemaniarren aurkako oposizioa eskola-urtea hasi bezain laster hasi zen. Bigarren hezkuntzan, Lorrenako gurutzeak marraztu zituen garaipenaren 'V'arekin.

Gero panfletoak etorri ziren. Michelek Paris eta Versailles artean bidaiatzen zuen, «musika-koadernoaren eta historia-liburuaren» artean ezkutatutako orri mimeografiatuak berreskuratzeko. Kontrol-puntuetan, alde aurretik irekitzen zuen poltsa, baina ez zioten inoiz miatu. Nork susmatuko zuen bigarren hezkuntzako neska batez?

1942an, konpromisoak beste dimentsio bat hartu zuen. Familiak "Borgoina" sarearekin bat egin zuen eta ihes egindako gerra-presoa hartu zituen; hegazkin-pilotu estatubatuar eta britainiarrak, gehienak.

Ostegunero –eskola-umeen egun librea garai hartan– nerabearen egitekoa gizon horiek probintzietan hartzea zen, Parisera trenez eramateko. Urrutitik jarraitzen zioten, hitzik esan gabe. Eta inoiz kontrolatzen bazituzten, bere bideari jarraitzeko agindua zuen, haiez kezkatu gabe.

Fotomatoira ere laguntzen zien, paper faltsuetarako argazkia egitera. Eta erantzuna prest zeukan joan-etorri haiez galdetzen bazioten: gor-mutuak ziren eta Tolosako (Frantzia hegoaldea) establezimendu espezializatu batera bidaltzen zituzten. Arriskua? «Bigarren mailakoa».

Baina 1944ko apirilaren amaieran, Batxilergoa

bukatu baino bi aste lehenago, etxean atxilotu zuten gurasoekin. Salaketa baten ondorioz. 12 urteko Jean-Marie anaia txikiak bakarrik ihes egin zuen sarekadatik: bizilagunekin bizi izan zen gerra amaitu arte. Alemaniara deportatu zituzten: 1944ko abuztuaren 15ean, Paristik irten zen azken trenean, justu Askapenaren aurretik... Ez zuen berriz ere ikusi aita, Buchenwalden hila.


Inoiz ez zen amarengandik banandu –«horrek salbatu gintuen»–, eta biak Ravensbrücken espetxeratu zituzten; gero Königsbergen, 75402 erregistro-zenbakia eta triangelu gorria (erresistenteena) bularrean. «Heriotza kiratsa zerion leku batera iritsi ginen».

Azkenik, Armada Gorriak askatu zituen 1945eko otsailaren 5ean. Ekainean iritsi ziren Parisera. Michelek 19 urte bete berri zituen.

Urteetan, asko bezala, isilik egon zen. Baina diskurtso ukatzaileen aurrean, maisu egin zen eta familia bat sortu eta eskola, kolegio eta lizeoetan lekukotasuna ematea erabaki zuen.

Ehunka biltzen dituen haur horiei egiten dien kontakizuna Primo Leviren aipamen batekin bukatu ohi du: «Ez ahaztu izan zela, ez ahaztu, ez ahaztu».

Eta gaur egun ere memoriaren betebeharra... «Ukrainan gertatzen ari denarekin, 1940ko ekaina berpizten ari zait», dio. «Guk egin genuen. Zergatik ezin dute ukrainarrek egin? Lagundu egin behar diegu!»



NOURNEWS AGENCY | AFP



IKUSMIRA

AURPEGI ILUNAK AKORDIO POZGARRIA AURKEZTEAN

Ez dute, ez, poz-aurpegirik. Ezkerrekoa Musaad bin Mohammed al-Aiban printze saudiarra da; eskuinekoa, Ali Shamkhani irandarra. Biak Saudi Arabiako eta Iran-
go segurtasun nazionalen kontseiluetako aholkulari nagusiak dira. Erdian, eta bitartekari eta anfitrioi lane-
tan, Wang Yi Txinako Alderdi Komunistako nazioarteko

arduraduna; beraz, hierarkian, Txinako Kanpo Arazoetarako ministroaren gainetik dagoena, goi-
goian, eta bakarrik Xi Jinpingen agintari gorenaren azpitik. Wangek Iranen eta Saudi Arabiaren arte-
ko harremanak berreskuratzeko akordioa aurkeztu zuen joan den astean. Alde batera eta beste-
ra daudenak ez daude alai, akordioak 45 urteko tirabirak eta liskarrak amaitutzat jotzen dituen
arren. Eta hori, aurpegi iluna, seinale ona da. Bi aldeei adostea asko kostatu zaien seinale. Akor-
dio garrantzitsuenak izerdi-patsetan sinatzen dira, ez barrez. Barrez ari dena, hori bai, Txina da.
Ameriketako Estatu Batuei gol ederra. Dabid Lazkanoiturburu



Jihadistengandik ihes egin zuenean, Aichata Hassanek ez zeukan nolanahiko erronka aurretik: agintariei Nadia 12 urteko alaba existitzen zela erakustea, Nigerreko eskolara joan ahal izateko.

Saheleko herrialde idor honetan, munduan biztanleria-
ren hazkunderik bizkorrena duenean, herritarren ia erdiak 15 urte baino gutxiago ditu. Hala ere, haurren %40 ez dira jaiotzean erregistratzen.

Fenomeno hau jazotzen da, oro har, familia pobre askok ez dutelako astirik, ezta dirurik ere, izapidea egiteko baimena duen Gobernuaren ordezkari batengana bidaiatzeko. Eta prozedura oso zaila delako familia txiroentzat. Horregatik, familia askok ez dute lortzen haurrak jaio eta 60 egunera

POBREZIAREN ONDORIOA

Nigerreko hamar haurretatik lau ez dira existitzen Administrazioarentzat

 **GIZA ESKUBIDEAK / GAUR8**

Mundu osoan zehar, milioika haur ez dira existitzen herrialde pobreetan. Nigerren jaiotzen diren hamar umetatik lau ez dituzte jaiotzean erregistratzen, familia txiroentzat oso prozedura zaila delako. Dokumenturik ez izateak ez die arazorik ematen herrixkan bertan, baina ateratzeko oztopo bilakatzen da. Batez ere, oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko.

erregistratzea, legeak eskatzen duen bezala.

Ziurtagiri eza ez da arazo izaten bizi osoa herrixkan pasatzen dutenentzat, baina buruko min handia da beste

nonbait bizi direnentzat, Aichata Hassanen eta haren familiaren kasuan bezala. Zeneba, Nadiaren bederatzi urteko ahizpa, eta lau urteko Abdulkarim anaia ere linbo administratiboan daude.



Hirurak Alzoun jaio ziren, mendebaldeko Tillaberi eskualdeko herrixka txiki batean, non ez dagoen jaiotzak erregistratzen dituen Gobernuaren ordezkariarik. Azken bost urteetan, jihadistien erasoek gora egin dute eskualde horretan, Burkina Faso, Mali eta Nigerrekin muga egiten baitu.

Matxinatuak motorretan sartu ziren Alzoun herrixkan, hasieran, abelburu batzuk lapurtzera. Baina, gero, herriko buruzagia hil zuten. Eta horrek eraman zuen Hassan bere seme-alabekin handik oinez irtetera. Hogeita hamar bat kilometro egin zituzten Sakoirara iritsi arte.

PAPERAREN KULTURA

Nadia, Zeneba eta Abdulkarim herriko eskolan matrikulatu zituzten. Baina Nadia Bigarren Hezkuntzan sartzeko azterketarako inskribatzean, jaiotza-ziurtagiririk ez izatea oztopo gaindiezina izan zen.

«Haur asko daude egoera horretan», onartu du Idrissa Illiassou Pedagogia aholkulariak, lanbidean 30 urte daramatzanak. «Jaiotza-agiririk ez duten gazteak heldu bihurtzen dira nortasun agiririk gabe, eta baztertu egiten dituz-



te», esan du. Nortasun agiriak erronka handia dira txirotutako Nigerren.

«Gure kultura paperean oinarritzen da, baina zaharkituta dago. Ordenagailuak erabili behar ditugu», adierazi du Ibrahim Malangoni egoera zibileko erregistroen zuzendari nazionalak. Nazioarteko komunitatearen laguntzarekin, Niger arazoa konpontzen saiatzen ari da, sentsibilizazio-operatiboen, Gobernu Kanpoko Erakundeekiko lankidetzaren eta sektorea digitalizatzeko kanpainen bitartez.

«Operatiboak maximizatu nahi ditugu, 2030erako biztanle guztiak erregistratuta edukitzeko helburua betetzeko», esan du Malangonik. Gaur egun jaiotzen direnen %60 erregistratzen da, baina horrek esan nahi du Estatuak hamar haurretatik lau ez di-

Ezkerreko orrialdean, haur bat Sakoirako eskolako hormako zulo batetik begira eta zenbait ikasle eskola horretako patioan. Goian, neskato bat Sakoirako eskolako ateetan. Alboan, hiru mutiko beren arropa Niger ibaian garbitzen, Niameyn.
Olympia DE MAISMONT | AFP

tuela kontuan hartzen. Hala eta guztiz ere, kopuru hori «maila aipagarria da, duela ez asko, 2007an, %30ean baikeunden», azaldu du Malangonik.

Baina, nortasun-agiria ezinbestekoa da eskolan erregistratzeko, dohaintza bat lortzeko, banku-kontua irekitzeko, botoa emateko edo polizia-kontrol postu bat pasatzeko. Oinarrizko zerbitzuak eskuratu ahal izateko.

Familia pobre askok ez dute astirik, ezta dirurik ere, haurrak erregistratzeko baimena duen Gobernuaren ordezkari batengana bidaiatzeko

Nortasun-agiria ezinbestekoa da eskolan erregistratzeko, dohaintza bat lortzeko, banku-kontua irekitzeko, botoa emateko edo polizia-kontrol postu bat pasatzeko

ITXAROPENA EMAN

«Dokumentu zibiletarako eta jaiotza-ziurtagirietarako sarbidea baldintza da edozertarako», esan du Jan Egeland Norvegiako Errefuxiatuen Kontseiluko (CNR) idazkari nagusiak duela gutxi egindako bisita batean. Bere hitzetan, Nigerren, arazoa diru pixka batekin konpondu daiteke.

«Itxaropena ematea da gure lana. Etorkizunean, gazte horiek, hainbeste behar dugun

energia berdearen sektorean adibidez, ekintzaile berri edo mingostasunak jandako heldu bihurtzea nahi duzu?» galdetu du.


Katoumi Yousouk, Sakoirako tipula ekoizleak, adierazi du ez duela inoiz dokumenturik izan. «Emakumeok ez dugu urrutira bidaiatzen eta herrixkan ez ditugu behar», azaldu du.

Baina matxinatuen etorrerak dena aldatu zuen. Militarren kontrol postuak agertu ziren eta dokumenturik gabe gurutzatzea amesgaizto bihurtu zen. Herrira tipulak saltzera edo ezkontza batera joaten denean, «beti soldaduei ordaindu behar izaten diet pasatzen uzteko», kontatu du Katoumi Yousouk. Orain, bai bera bai Aichata Hassan epaile ibiltari baten zain daude dokumentu egoiak lortzeko.



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Arkitekturaren etika



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

Demagun arkitektura bulego bateko atea enpresari handi batek jotzen duela, spa bat ingurune natural eta babestu batean egiteko lan eskaintzarekin. Edo gerta liteke Donostia zentroko eraikin bat bota eta beste hotel bat egiteko proposamena iristen dela arkitekto baten lan eskaintzetara. Printzipio etikoaren oinarri ekologiko eta sozialen arabera, aipaturiko proposamenak oso problematikoak lirateke. Lehenik, aktibitate ekonomikoaren beharraz galdetu beharko genioke geure buruari; ondoren, ia lekurik egokiena ote den, eta azkenik, zein den arkitekturarik egokiena proposamena garatzeko. Ez da beti posible edo erraza lan iturri bati ezezkoa ematea. Praktika profesionalean gerta daitezkeen gorabehera eta egoerei nola aurre egin konplexutasun eta ñabardura askoko bidea izango da, eta ez genuke modu arin batean epaitu beharko. Baina komenigarria litzateke, errealitate fisikoaren eraldaketan hainbesteko inpaktua duen egiteko batean, arkitektura eta hirigintza bezalako jarduerak bezalakoxeetan, profesionalki lanean hasi baino lehen, eraikuntza jardueraren inguruko etikaz gogoeta bat egitea. Hirietan eta hirietatik kanpo eraikitzen diren sarraskien atzetik, lana garatzen duen arkitekto konplize bat baitago.

Oso ezaguna da arkitektoen artean kasu bat, Lacaton eta Vassal pritzker saridunena, non, plaza baten hobekuntzarako zer egin behar zen galdetuta, ezer ez egiteko proposamena lu-

zatu zuten. Paradigmatikoa gertatu da anekdota hori, kontatzeko, batzuetan, *bussiness* beharraren aurrean, arkitekturaren etikari jarraitzea aukerarik arrakastatsuena dela. Eta aipagarria da ere bai, horrelako kasu gutxi ezagutzen direlako, nahiz eta jakin egoera askoren aurrean erantzunik zentzuzkoena dela aldaketa eza edo egokitzen xumea egitea. Dirugosea edo prekaritatea, edo arrakasta eta egoaren elikadura egon daitezke moralaren praktika ezaren aurrean.

Baina badira arkitektura bulego asko, lankideen artean adosturiko eta askotan publiko egindako manifestu etiko baten oinarrian lan egiten dutenak. Adibidez, ber-eginez eta kendu eragiketekin eraikitzen dutela esaten dutenak, edo nagusiki eraikinen lanetan egurra erabiliko dutela diotenak, edo artisautez-technikak eta bio-teknikak abian jarriko dituztenak edo begirada feministarekin eraikiko dutenak. Batzuetan, marketin teknika hutsaren usaina har bagenezake ere, ez da batere ohikoa arkitektura nondik egingo den zehazten duen posizionamendu argi baten pean praktika profesionala egitea eta horri tinko jarraitzea, lan-iturrien mugaketaren beldur. Ausartak eta politikoak gertatzen dira etikaren bidea jarraitzen duten arkitektura jardunak. Baina egia da arkitekturaren etika praktikatzan duten arkitektoen ibilbidean jarraitutasuna eta, beraz, sustengu koherente bat irakurtzen dela egiteko moduetan, egoera eta baldintzen arabera kiribiltzen dena, eta jardunari intentsitate boteretsu bat eskaintzen diona. •

{ asteari zeharka begira } Pello OTXANDIANO

Bi norabide

Pentsioak ditugu hizketagai Euskal Herrian Espainia zein Frantziako erreformen kariatara. Espainiako erreformaren kasuan, EH Bildu eta Gobernuaren arteko akordioaren berri izan dugu asteen; Frantzia, aldiz, Macron Senatuaren ginetik pasatu da eta dekretu bidez onartu du kalean gaitzetsitakoa. Aste berean Europako Banku Zentralak beste 0,5 puntu igo ditu interes tipoak, diruaren prezioa %3,5ean ezarrita, noiz eta, Silicon Valley bankuaren porrotaren ondorioz, beste krisi finantzario baten harabotsak entzuten direnean. Bestalde, joan den asteen jakin zen "clausula de escape" delakoa –defizit eta zor publikoa mugatzera bideratutako neurri fiskalak (hots, austeritate politikak) behin-behinean indargabetzen zituen klausula– bertan behera utzi duela Europar Batzordeak.

Espainiako pentsioen erreformak haridura sortu du Euskal Herrian, neurri batean. ELAren balorazioa irakurri besterik ez dago bestelakorik espero zutela ikusteko, adibidez. Asko espekulatu da Next Generation funtsen baldintzez; hau da, funts horien truke murrizketak onartu beharraz. Honela idatzi zuen ELA duela bi urte: «EH Bildu hace abstracción de que los fondos están condicionados a la aplicación de nuevos recortes en las pensiones, a no derogar las reformas laborales o a aplicar en los próximos años las políticas presupuestarias de austeridad». Iragarritako hiru gauzetako bat bera ere ez da gertatu. Besterik da lan erreforma zein pentsioena ez nahikotzat jotzea. Inportantea da arriskuak zein aurrerak, biak ala biak, ez handiestea ez gutxiestea.

Esango nuke bi norabideren arteko lehia bizi dugula maila globalean zein europar testuinguruan ere. Bate-tik, badira inflazioari aurre egiteko eskaera gutxitzera bideratutako politikak planteatzen dituztenak (interes tipoen igoera, kasu) eta covid-19ak sortutako egoerari aurre egiteko martxan jarritako politika ekonomikoa ('keynesianismo pandemikoa' deitu izan dena) amaitu nahi dutenak. Ameriketako Estatu Batuetako Erreserba Federalak ekin zion interes tipoak igotzeari eta, Japo-

niak ez, beste herrialde aberats guztiek eman diote segida. Europar establishment-een ez dira gutxi 2008ko austeritate politiken bideari jarraipena eman behar zaiola defendatzen dutenak. Ortodoxia neoliberalaren zaindariak dira.

Bestetik, ez dira gutxi bide horrek inora ez garamatzala defendatzen dutenak ere. 2008. urteko ofentsiba neoliberalaren ondoren, gisa bereko beste olatu batek sortuko lukeen astinaldi sozialak Europar Batasunaren beraren egonkortasuna seriozki kolokan jarriko lukeela pentsa dezakete agian. Hainbat ahotsek argudiatu dutenez, austeritate politikek ezinezko bihurtuko luke ezinbestean gauzatu beharreko eraldaketa produktiboa (trantsizio energetikoa eta eraldaketa digitala tarteko). Berriki, politika monetario espantsionista bukatzeko temak, paradoxikoki, sistema finantzarioaren beste krisi bat ekar dezakeelako beldurra hedatu du.

Espainiako pentsioen erreformak agerian utzi du lehia bizirik dagoela, eta ez dagoela ebatzita zein norabide nagusituko den. Erreforma honekin, pentsioen

Espainiako pentsioen erreformak agerian utzi du lehia bizirik dagoela, ez dagoela ebatzita zein norabide nagusituko den

gastua Barne Produktu Gordinaren %12tik %15,5 izatera pasatuko da; pentsio baxuenak igo egingo dira; "baby boom" belaunaldia delakoaren pentsioak estaltzeko, murrizketak egin orde, diru-sarrerak gehituko dira, eta horretarako soldata altuei gehiago kotizaraziko zaie, kapital errentetatik lan errentetarako transferentzia bat gauzatuta.

Ez da aski, urrunago joan behar da. Bai. Baina ezin uka, testuinguru historiko hain berezian, bi norabideren arteko lehian, hautu neoliberalaren parean norabide egokia hau dela. Norabide honetan sakondu behar da. Lehenengo galdera da Espainian indar-harremanak gehiagorako eman ote dezakeen. Eta bigarrena ia Euskal Herrian zein kontsentsu liratekeen posible urrunago joan ahal izateko. •

KIROL EGOKITUAREN UDABERRIA

Aukerak loratzen doaz baina baliabideak behar dira aukera-berdintasuna ereiteko

 **KIROLA** / Nerea Goti

Kirolak irribarre guztiak behar ditu, baina bide luzea falta da benetako aukera-berdintasun horretara heltzeko. Baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak behar dira desgaitasunei eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen beharrei erantzuteko, eta apustua ondoko kiroldegitik hasten da.

Arku-tiraketa, atletismoa, arrauna edota badminton bezalako kirol diziplinak topa daitezke, besteak beste, kirol egokituen federazioetan. Duela ez hainbeste ezinezko zirudien hori posible egin dute eragile askoren ahaleginek, desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien bultzada jarraituz, neurri handi batean. Esfortzu kolektibo horri esker, kirola praktikatzeko mugak ezabatzen hasi dira, baina bide luzea geratzen da, oso luzea,

benetako aukera-berdintasun egoera batera heltzeko. Erronka nagusia hor dago.

Adimen-desgaitasuna, mugitzeko zailtasunak... Desgaitasunen munduan dauden egoera anitz horiek kirol praktikan erantzuna aurkitzean datza gakoa, eta aniztasun horri erantzutea borondate eta baliabide kontua da. Lehenik, mendekotasuna duten pertsonen artean oso autonomia maila desberdinak daudelako. Mendekotasun mailaren arabera, halaber, laguntzaileen beharra egon daiteke, egokitu-tako materialaren eta ekipa-

Azken hamarkadetan biderkatu egin dira kirol egokitua praktikatzeko aukerak. Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioan, adibidez, hainbat praktika bultzatzen dira. Irudietan, kirol partidak. Kirol Egokituen Gipuzkoako Federazioa

menduen premia bereziak... Kirol guztiak praktikatzeko baldintzak, bestalde, ez dira berdinak, baina aukera-berdintasuna bermatzeko, premia fisiko edota psikiko horietara egokitutako eskaintza bat ere bermatu behar da.

Bistakoa da erronkaren neurriko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak beharko direla irisgarritasun maila bera ziurtatzeko, baina behar diren inbertsio ekonomikoen eskutik zaintzak, profesionaltasunak eta formazioak joan behar dutela azpimarratu dute eragileek.

Egunerokoan ematen diren zailtasun horietara hurbiltzeak zenbait egoera argi ditzake. Bizkaian aurkitutako egoera bat, adibide gisa. Surf inklusiboa praktikatzen zuen lagun talde batek, harik eta programaren finantzazioa desagertu zen arte. Bilbao Surf Film Festival-en surf egokituari eskainitako espazio batean azaldu zen kirolari horien esperientzia. «Hemen gaude ikus gaitzaten, gure beharrak ikus daitezen eta edozertara

iritsi ahal izateko laguntza hori erreibindikatzeko, gu ere gizartea garelako eta ez delako bidezkoa gizartearen zati bat surfa bezalako kirol bat praktikatzetik baztertzea. Frogatu dugu egia dela [surfa] kirol inklusiboa dela», adierazi zuen parte hartzaileetako batek.

Azaldu zuten, behar dituzten ekipamenduak falta dira: aldagelak, hondartzak irisgarriagoak egiteko konponbideak... eta kirola egiteko tresna egokituak. Material horrek izugarri igotzen du praktika-ren kostua, ezinezkoa egin arte laguntzarik ez dagoenean. Taldeko beste kide batek adierazi zuenez, «ez da bakarrik eskola kostatzen zaiguna: hondartzara heltzea ere kostatzen zaigu».

INKLUSIOAREN ARGAZKI PREZIATUA

Kirol egokituen egoeraren begirada orokor bat bilatu du GAUR8k Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioan (GKF), Bizkaiko esperientzia horri erreparatuta eta, oro har, kirol egokituak bizi duen unea testatzeko. Alicia Figuerola de la



Paz federazioko zuzendari teknikoaren hitzetan, aldaketa-aro batean dago kirol egokitu-tua, aukera askorekin eta arriskuekin benetako helburutik desbideratuz gero. Kirol munduan irisgarritasuna bermatzea dago zerumugan. «Kirolak irribarre guztiak behar ditu», du lelo Gipuzkoako federazioak.

«Azken bost urte hauetan boom moduko bat egon dela dirudi; oso ondo dago, kirola egiteko aukerak sor daitezke-lako, eta horixe axola zaigu guri, kirola egiteko eskubidea. Baina arrisku bat egon daiteke. Izan ere, hain modan dagoenez, kirol egokitutzat hartzen da dena eta desgaitasuna duten pertsonen argazkia oso gozoa da», azaldu dio GAUR8ri. Kirol egokitua ikurra izatetik errealitatea izatera dagoen aldean jarri du Figuerola de la Pazek azpimarra.

Hainbat errealiteri buruzko informazio eta ezagutza falta dago, bere iritziz: «Desgaitasunaren inguruan, alde batetik, eta mendekotasunak suposatzen duenaren inguruan, bestetik; desgaitasun bat duen pertsonak autonomia maila handia izan dezake, baina mendekotasuna duenak beste beharrizan batzuk ditu, guztiz ezberdinak izan daitezkeenak».

Ohartarazi du, halaber, zaurgarritasun egoeran daudenentzako proiektuak benetan pertsona horiengana heltzen direla ziurtatu behar dela, haien bizi kalitatea hobetzen dutela, «inor atzean utzi gabe».

Politikari eta teknikarientzako deia da bereziki, «formatzeko eta informatzeko, bereizten ikasteko, eta zer behar dauden jakiteko». Erantsi duenez, urratsak egin baino lehen on-

Aurrerapen teknologikoek bizimodua irauli dute, baina ezin dituzte pertsonak ordezkatu. «Pertsonen arduratzen diren pertsonen lanpostuak» aldarrikatu dituzte

Nafarroan, oinarrizko gizarte eta osasun zerbitzuen laguntzarekin, desgaitasun fisikoa duten pertsonak kirolera erakartzea da erronka nagusietako bat

do legoke kirol egokituaren munduko pertsonei zuzenean galdetzea.

Kirol egokituaren inguruko begirada orokor hori eskatuta, Miguel Rodriguez Trias Nafarroako Kirol Egokituen Federazioko presidenteak berreskurapen une bat ikusten du pandemiaren ostean. «Pandiemiaren garaian lizentzien zifra okerrenak egon ziren, oso baxuak, baina pandemia aurreko jarduera berreskuratzen ari gara, 2019ko egoerara hurbiltzen, eta erronka berriak zehazten ari gara».

«IGERI EGITEN JARRAITU AHAL DUZU»

Desgaitasuna duten pertsonen taldeak eta norbanakoak berezko federazioaren parte izatera igarotzeko joera orokorra nabarmendu du Rodriguezek. «Neguko kirolen kasuan, adibidez, eta horren barruan dagoen egokitutako eskiarenean, epe laburrean eskiko federaziora pasatuko da. Esan dezakegu “gainetik” kenduko dugula, baina adi egongo gara eta horren sustapena bultzatuko dugu betiere».

Rodriguezek gehitu duenez, zenbait kirol egitea konplexua izan daiteke, behar dituzten baliabideengatik, eta hor instituzioen laguntza funtsezkoa da, baina giza baliabideen kasuan, boluntarioak dira ardatz nagusia Nafarroako Federazioan. «Gai konplexua da, bai-



Haurrek lehiazeko aukera izan dezaten espazioak sortzea da helburua. GKEF

na ez da federazioan daukagun arazo nagusia. Nahiko ondo moldatzen gara: pertsona batek korrika egiteko laguntza behar badu edo itsuentzako tandem batean pilotua behar bada, adibidez, beti dago lagun dezakeen jendea».

Finantzaketari dagokionez, hain zuzen, gastu orokorretarako laguntzan izandako jaitsierari aurre egitea da erronketako bat Nafarroan. «Nahiko egoera onean gaude, baina defizitak sortzen dizkiguten jarduerak daude; Nafarroako Gobernua-ren gastu orokorretarako laguntza jaitsiko da, eta horri aurre egin beharko diogu ekonomikoki».

Nafarroako Federazioan erronka nagusia, hala ere, desgaitasun fisikoa duten pertsonak kirolera erakartzea da. Rodriguezek azaldu duenez, arlo horretan, Maria Txibiteren Exekutiboarekin eta Miguel Indurain Fundazioarekin ari

dira gaia lantzen. «Desgaitasun fisikoa dutenen artean, geroa sortutako urritasunak dituzten pertsonak dira gehienak; istripuen ondorioz, esaterako. Baliteke horietako batzuek istripuaren aurretik kirol bat egin izana eta horrela ez bada ere, pertsona horiei mezu argi bat helarazi behar zaie hau esanez: ‘Igeri egitea edo eskiatzea gustuko bazenuen, igeri egiten edo eskiatzen jarraitu ahal duzu’».

Kirol egokituaren sustapen hori oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Nafarroako Osasun Institutuaren bidez kudeatzeko aukera dagoela uste dute, informazioa helarazteko, parte hartzea sustatzeko...

LAGUNTZA DOLU PROZESUETAN

«Ezagunak dira kirola egiteak osasunerako dituen onurak, baina desgaitasuna sortu zaien pertsonen kasuan, kon-tuan hartzekoa da errehabili-

tazio fisiko eta psikologikora-ko duten ahalmena, baita bizi-tza berrira egokitzeko proze-suan ere». Zehaztu duenez, elkartetan egin behar dute informazioa zabaltzeko ahale-gin hori, baina baita osasun eta gizarte langileekin ere, desgaitasuna sortu zaion per-tsonarekin aukera hori lan-tzeari begira: «Desgaitasu-nean, batzuetan, igaro behar den dolu prozesua dago, eta kirolak bat egin dezake horre-kin guztiarekin; dolu prozesu hori gainditzen lagun dezake, alegia».

Lehiaketatik harago, kirola egiteko orduan inguruan dau-den aukerei erreparatu beha-rra planteatu du Figueroa de la Pazek, hainbat pertsonak bi-dean aurkitzen dituzten zailta-sunez jabetzeko. «Pentsa eza-zu nola dagoen gertuen duzun kiroldegia», gogoratu du. «Desgaitasuna dutenen artean badaude autonomoak diren pertsonak eta mendeko dire-nak. Zer nolako arreta jasoko du pertsona horrek igerile-kuan sartu nahi badu? Zer ba-liabide ditu kiroldegi horrek pertsona horri behar duen arreta emateko?», gehitu du. Aldagelak erabiltzeko orduan, era berean, behar zehatz ba-tzuetara egokituta egon beharko lirateke, arropa alda-tzeko orduan edo komuna era-biltzen laguntzeko. «Hori guz-tia oso serio hartu behar da. Non daude udal begirada du-ten politikak kirol jarduera bat praktikatu nahi duten eta des-gaitasuna duten pertsonen-tzat?».

Aukera-berdintasuneko agertoki horretara heltzeko aurrerapen teknologikoek ze-regin garrantzitsua jokatu du-te, zalantzarik gabe, baina tek-nologiak ezin du pertsonak ematen duten arreta ordezk-



tu, ohartarazi du teknikari gi-puzkoarrak.

Teknologiak nabarmen ho-betu du bizi kalitatea, dioenez. «Gauza asko irauli ditu, baina askotan pertsonen kontrata-zioa saihesteko erabiltzen da, eta pertsonen arduratzen di-ren pertsonen lanpostuak behar ditugu guk. Eta bitxia bada ere, beti gauza bera ger-tatzen da: sektorearen gehien-goia emakumeak dira».

Oro har, gauza askotan au-rreratu da azken 20 urteetan. Bide horretan, Gipuzkoako Fo-ru Aldundiak urrats handiak egin ditu kirol egokituaren ar-loan, Figueroa de la Pazek na-barmendu duenez, baina ho-betzeko tarte handia dago, bere hitzetan: «Mendekotasu-naren ingurukoa inbertsioa da, ez gastua». Eta proiektzio handia du gizartean, «jendea-ren eta haren familiaren bizi kalitatea hobetzen baitu».

EZBERDINARI EZ ZAIO KASU EGITEN

Desgaitasunak gizartean duen inpaktua azpimarratu du tek-nikari gipuzkoarrak. Zehaztu duenez, «Gipuzkoan bizi garen 717.000 bat lagunetatik 63.000k desgaitasunen bat dute baloratuta; horien artean, mendekotasuna duen jende asko dago eta horrek askoz in-paktu handiagoa du familian». Mendekotasunak eragindako familia horiek guztiak eta, gai-

Irudian, Boccia 2022-2023 Nafarroako txapelketako hirugarren jardunaldia. Nafarroako Kirol Egokituen Federazioa

nera, buruko osasunaren bila-kaera eta nahasmendu eta gai-tzetan izaten ari den igoera kontuan hartuz, gizartean oso inpaktu zabal bat duen erreali-tate baten aurrean gaudela dio. Hala ere, «ezberdinari ez zaio kasu egiten; berdin dio desgai-tasunagatik, pobreziaagatik edo zaurgarritasun egoeran ego-teagatik den ezberdina. Ez da posible udalerrri aberatsetan ekitate printzipiorik ez izatea», planteatu du Gipuzkoako Fede-razioko ordezkariak.

Desgaitasuna duen eta kiro-la egin nahi duen pertsona ba-tek izan ditzakeen espektati-bez galdetuta, gomendio zehatz bat egin du Figueroa de la Pazek: «Informazioa bila-tzea da lehenengoa». Horri be-gira, Gipuzkoako Kirol Egoki-tuen Federazioan orientazio zerbitzu bat dute, eta kasu ho-rietan inguruan dauden auke-rak aztertzea da lehen urratsa, azpimarratu duenez.

Mendekotasunaren ingurukoa «inbertsioa» dela dio Alicia Figueroa de la Pazek, eta beharrianetara heltzeko formatu eta informatzeko beharra aipatu du

Desgaitasunak gizartean duen inpaktu handia nabarmendu dute federazioek, baita kirolak pertsonentzat eta familien bizi kalitatean duen eragina ere

Eskola munduari begiratuta, aurrerapen asko egon da in-klusioari dagokionez, baina ikastetxeetatik kanpo «ez du-gu mendekotasunaz ezer jakin nahi izaten», hausnartu du gi-puzkoarrak aurrean dagoen beste erronka bat aipatuta.

Eskola munduarekin lotuta, hein handi batean, kirol egoki-tuen gida argitaratu du Gipuz-koako Federazioak erakundeen laguntzarekin, beharrezko ikusten zutelako formatzea eta jarduera fisiko inklusiboaren analisi argigarri bat eskaintzea.

FOKUA, ARIKETA FISIKOAN

Eskola kirola aipatuta, Estatu espainiarrean laster inda-rrean sartuko den legea aipa-tu du Figueroa de la Pazek, «aurreko legean ez bezala, fo-kua askoz era nabarmena-goan jarriko delako ariketa fi-sikoan, lehiaketan jarri ordez». Izan ere, «gauza asko iraultzera dator maila asko-tan, batez ere berdintasuna-ren eta aniztasunaren ikuspe-gitik. Ez da panazea, baina erabateko aldaketa plante-atzen du». Hala ere, faltan bo-tatzen ditu «lege horiek ku-deatzeko planak».

Gipuzkoako Foru Aldundia kirola inklusiboagoa eta hezi-tzaileagoa izan dadin egiten ari den ahalegina azpimarra-tuta, mundu horretan forma-zioa behar dela uste du zuzen-dari teknikoak, baita giza baliabideak ere. Federazioan bertan eskola kirol egokituan lan egiten ari dela nabarmen-du du, tratu indibidualizatua emanaz. Herrialdeko zazpi es-kualdetan berariazko espa-zioetan ari dira lanean, «inor kanpoan gera ez dadin».

Adierazi duenez, une ona da, jende askok gauzak egin nahi dituelako eta hori ondo dago, baina baliabideak mugatuak

dira. Lehiaketa arlo deigarria da, baina lehenengoa da desgaitasuna duen haur bati lehian aritzeko aukera bermatzea. Askatasun hori izatea eta ibilbide bat jarraitu ahal izatea oso garrantzitsua da. Hori lan handi bat egiten ari diren klub bidez egiten da, baina arreta behar dute aldagelan... Kirola praktikatzen hastea urrats bat da, eta lehiatzeko aukera izatea, beste bat, eta horretarako hainbat beka daude; teknifikaziokoak, kasu. «Teknifikazio proiektu zehatz bat daukagu guk, bekarik ez dutenei laguntzeko. Zaila da, desgaitasunaren mundua anitza delako. Eta horrez gain, estimulazio goiztiarra dago, adinekoentzako programak eta behar eta kirol helburu ezberdinak», zehaztu du gipuzkoarrak. Azpimarratu duenez, eskola eta talde askoren lan konprometitua dago kirol egokituari.

Nafarroan, hainbat lan ildo dituzte kirolera sartzeko lehen urrats horietan laguntzeko; hainbat kiroletan ari zeko eta adin ezberdinetara zuzenduta, hain zuzen. Errendimenduko saioak daude, baita integratzeko bideratutako programak ere. Horietako asko kirol federazioek eurek bultzatzen dituzte. Miguel Rodríguezek ohartarazi duenez, benetako inklusioa desgaitasuna duten pertsonak eta halakorik ez dutenak elkarrekin aritzeko aukera izatea da. «Federazio batek kirol inklusiborako programa egiten badu, adibidez, eta adimen-degaitasuna dutenak aparte badaude, hori ez da inklusioa izango; gauza da saiatzea kirolariak batera aritu ahal izan daitezen», planteatu du Nafarroako Federazioko presidentek.



Surfaren inguruko filmen jaialdian surf egokituari eskainitako espazioa, irudian. LABORAL KUTXA BILBAO SURF FILM FESTIVAL

OLATU GAINEKO AHALDUNTZE-TESTIGANTZAK ETA ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA ESKAERA

Surf inklusiboari eman dio hitza azken edizioan Bilbo eta Getxo artean egindako “Laboral Kutxa Bilbao Surf Film Festival”-ek, hainbat proiektzio eta kirolarien testigantzak bildu zituen mahai inguru batean. Hizlarien artean, aurpegi ezagunak: Aitor Frantsesena ‘Gallo’, Paloma Oñate, Joseba Mercader eta Xabier Aiestaran. Eta haien ondoan, surfa egiten duten kirolariak, erakundeei eta enpresa babesleei zuzendutako mezu argi batekin: «Behar desberdinak ditugu, eta ez da bidezkoa horregatik uretara gainerakoak bezala sartu ezin izatea». Izurdeak taldeko kideek bizi duten egoera azaldu zuten. Surfera hurbiltzeko aukera izan zuten beka programa baten aterkipean. Kontatu zuten, «gogoa» loratzen ikusi zuten; praktikak ekarri zien laguntasun sententziaz hitz egin zuten. «Surfa egiten hasi ginen eta ikusi genuen gustatzen zitzaigula», komentatu zuen hizlarietako batek; berari suposatzen zion erlaxazioa aipatu zuen beste batek. Surfa osasuna zela ikusi zutela gaineratu zuen hirugarren batek.

Surfa praktikatzea ahalbidetzen zuen proiektuaren finantzaketa bukatu egin zen, ordea, eta harekin batera, praktikatzeko aukera ere desagertu da jende askorentzat. «Jarraitu dezakegu surfa egiten, baina eragozpena da fundazio bat arduratzen zela eskolez, eta era horretara, alabak eta gainerako neska-mutilek eskolak zituzten», azaldu dio GAUR8ri Sonia Taboada Izurdeak taldeko kideak. Era indibidualean praktikatzek, inongo laguntzarik gabe, izugarri igotzen ditu kostuak; ohiko eskola batek daukan kostuaren bikoitza edo hirukoitza izan daiteke, dioenez. Flotagarritasuna duten jantziak, zabalera bereziko taulak edo bestelako egokitzapen teknikoak dituzten materialak... behar izaten dituzte edota begirale bat ondoan. Eskola batzuek jantzi eta taula bereziak izaten dituzte, baina beste batzuek ez dute halakorik izaten, dioenez, eta desgaitasunaren barruan egon daitezkeen behar ezberdinak nabarmendu ditu. Sonia Taboadak zehaztu duenez, taldean zeuden hamazazpi lagunetatik bizpahiruk baino ez dute surfa egiten

jarraitzeko aukera izan. Eta ez dira bakarrik baliabideak; hondartzen erabilera ere hartu behar da kontuan, surfa egiteko baimenak... «Bizkaiko hondartzei dagokienez, neguan dituzten berezitasunengatik, gure haur gehienek ezin dute joan, eta hondartza horretan bertan zuk hartu duzun eskolak lan egiteko baimenik ez badu, oso konplikatu da dena». Nabarmendu du material egokitu finantzatzeko beharra dagoela, eta behar hori helarazi nahi dietela instituzioei, eskuragarriago egiteko: «Ezer gutxirako balio du ez dakit zenbat psikologo eta terapeutarekin ikerlan bat egiteak gero horrek lurra hartzen ez badu, erabiltzaileek zailtasun hauek guztiak aurkitzen badituzte, materialik ez badago, formaziorik ez duten pertsonak badaude... Futbolean, adibidez, zailtasun gutxiago egon daitezke, kirol irisgarriagoa izan daiteke, begirale baten beharrik behar ez duena agian; surfean, aldiz, konplexuagoa da dena, baina aldi berean, Bizkaiko kostaldea surfaren erreferente gisa saldu nahi bada...».



Unai
GAZTELUMENDI


iRRITZIA:





PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa



BERRIAK

Love and Death

Apirilak 27. HBO Max.

Elizabeth Olsen eta Jesse Plemons aktore protagonista gisa aurkitzea argudio nahikoa iruditzen zait telesail hau ikusteko. Gainera, gidoia David E. Kelley-k osatu du (“Big Little Lies”). Bi bikoteren benetako istorioa kontatzen du: Montgomery (Candy eta Pat) eta Gore (Betty eta Allan) bikoteena. Itxuraz oso lagun onak dira, erlijiosoak dira eta Texasako herri txiki batean gozatzen dute beren bizitzaz, baina ezkontzako desleialtasun bat dela medio, guztia hankaz gora jarriko da eta hildakoak ere izango dira tartean.

White House Plumbers

Martxoa amaieran. HBO Max.

Thriller ukituak dituzten drama politikoak maite badituzu,

Eta udaberrian, zer?

Negua atzean utzi eta martxoaren 20an udaberrian sartuko gara. Urte hasiera hotz samarra izan dugun arren –zentzu guztietan–, apurka estreinaldi garrantzitsuak iristen hasiko dira. Honako hauek, datozen asteotan jaioko edo itzuliko diren proiektu interesgarrienak.



adi honako estreinaldi honi. Duela mende erdi, Ameriketako Estatu Batuetako historiako eskandalu politiko nagusieta-ko bat agerian geratu zen: Watergate. Richard Nixon AEBetako presidente izan zenean gertaturiko eskandalu politikoa izan zen, haren kontseilari batzuen kontrako salaketa eta haren dimisioa ekarri zituen.

Bost atalez osaturiko “White House Plumbers” miniserieak Nixonen sabotatzaile politikoek eta Watergateko autore intelektualek babestu nahi zuten lehendakaritza hori nahigabe nola kendu zuten azaltzen du. Aktore ezagun asko topatuko ditugu, gainera: Woody Harrelson, Justin Theroux, Lena Headey edota Domhnall Gleeson, besteak beste.

Lucky Hank

Martxoak 19. AMC.

“Better Call Saul” telesail ikaragarriak betiko agur esan zigunetik, Bob Odenkirk aktorearen falta sumatzen dugu. Hutsune hori telesail berri ho-

nekin apur bat bete dezakezu. Richard Russo-ren eleberrian oinarritutako drama honek (komedia ukituak dituen) Railton College-raino garamatza. Baliabide gutxiko unibertsitate horretan Hank Deveraux (Odenkirk) Literatura saileko buru dugu. Errutina horren barruan, bere burua kolapsatzeko zorian dauden bi egoerei aurre egin beharko die: baliabiderik gabe bere saila aurrera ateratzea eta, aldi berean, adin ertaineko krisiaren kontra borrokatzea. Eta hori gutxi ez, eta familia egoera ere nahiko kolokan dauka. Bizitza gainbehera doala sentitzen du.

La nuit ou Laurier gaudreault s'est reveille

Ekainean zehar. Filmin.

Xavier Dolan zinemagilearen debuta telesailen munduan. 1990eko hamarkadaren hasieran girotuta dago, eta Mimi eta Julien-en istorioa kontatzen du. Bi anai-arrebek hiru kote banaezina osatzen dute



Logan lagunarekin batera. Harremanak eta beraien bizitzak eztanda egingo dute, ordea, Loganek, 17 urte betetzen dituenean, 14 urteko Mimi bortxatzen duenean. Hogeita hamar urte geroago, Mimi jaioterrira itzuliko da amaren gorpua zaintzera eta haiekin topo egingo du. Gorrotoak, beldurak eta zauri zaharrak inoiz baino indar handiagoz berpiztuko dira.

Dead Ringers

Apirilak 21. Amazon.

Sean Durkin zinemagile bereziaren telesaila. Mantle bi-kiak –Rachel Weisz-ek gorpuzten ditu biak– guztia partekatzen duten pertsona arrakastatsuak dira. Ginekologoak dira, eta helburu zehatz bat dute buruan: emakumeek erditzeko duten modua aldatzea. Beren proiektua Manhattanen hasiko da, eta legez kanpoko egoeren mugan kokatzen den mediku-azterketa baten aitzindariak izango dira; emakumearen osasun-arreta abangoardiara eramateko helburuz, prest daude etikaren mugei aurre egiteko. Izen bereko 1988. urteko filmaren remakea da (David Cronenberg-ek zuzendu zuena).



ITZULIKO DIRENAK

Ted Lasso

Hirugarren denboraldia. Martxoak 15. Apple Tv +.

Lehen denboraldia gainditzea zaila zirudien arren, maila mantendu zuen bigarren zatian eta aste honetan bertan hirugarrena iritsi da. Galtzaileri buruzko telesail kaskarra espero nuen eta oso positiboki harritu nauela aitortu behar dizut. Ikusteko erraza eta oso atsegina den ekoizpen hone-tan, Ted Lasso izeneko futbol amerikar entrenatzaile baten istorioa ikusteko aukera izan-go duzu. Ingalaterrako futbol



talde batean saiatzea erabaki-ko duen arren, bere eskarmen-tu ezak errezeloa eta mespre-txua piztuko ditu jokalarien eta zaleen artean.

Jason Sudeikisek azken ur-teotako pertsonaiarik baiko-rrena, atseginena eta zintzoe-na gorpuztu duela iruditzen zait, baina garrantzitsuena: ez da batere nekagarria. Argi da-go futbolzaleek bereziki goza-tuko duzuela ekoizpen hone-kin, baina baita gainerakoek ere, asmo onen botereari bu-ruzko komedia arina delako, eta futbola, hori pantailaratze-ko aitzakia baino ez. “Feel-good movie” azpigeneroaren baitan igerian dabilen ekoiz-pen hau opari txiki bat iruditu zait, negatibotasunak guztia inbaditzen duen garai hone-tan bereziki gozatuko duzue-na. Komediaren barruan dra-ma zantzu batzuk ere tartekatzen dituen arren, oso era orekatuan erabiltzen ditu, komedia estatubatuarraren eta britainiarraren arteko gu-rtzaketa ezin hobea lortuta.

Yellowjackets

Bigarren denboraldia. Martxoak 24. Movistar.

Telesail honen lehen denbo-raldiak asko harrapatu nin-

duen eta aurki iritsiko den bi-garrenak ere gauza bera egitea espero dut. Nerabeen emaku-mezko futbol talde bati buruz-ko istorioa da. Hogei urte lehe-nago izandako hegazkin istripu tragiko batek sekretu asko ezkutatzen ditu, bizirik atera zirenek kostatuta ahala kostatuta nahi dituztenak.

Tramari buruz ez dut gehia-go azalduko, zeure kabuz des-kubritzea merezi duelako, eta telesail honen oinarri oso sen-doa den misterioa zapuztuko lukeelako. Askok “Lost” tele-sailaren eta “Lord of the Flies” eta “¡Viven!” filmen arteko hi-brido gisa etiketatu dute. Tra-mari dagokionez antzekota-sun ugari dago, baita denboran saltoak eginez era-biltzen duten narratiban ere, pertsonaien gatazkak sakon jorratu dituzte, baina hortik aurrera urruneko erreferen-tziak iruditzen zaizkit.

Somebody Somewhere

Bigarren denboraldia. Apirilak 23. HBO Max.

Zeinen telesail txikia, baina zeinen berezia! Bizitzari aurre egiteko (ia) ilusio gehienak galdu dituen 40 urtetik gorako emakume baten begietatik



(Sam), bakardadeari, etsipenari eta frustrazioari buruzko erretratu zoragarria marrazten du telesai honek, guztia pertsonaien irribarre ahaltzuekin bustia.

Pertsonaia horiek sentitzen dute bizitzak ez dituela merezi bezala tratatu. Telesaila maisuki mugitzen da komedia eta dramaren artean, ikusleari etengabe irribarreak zein malkoak ateraz. Maite duzun pertsona bat galdu ostean bizitza berreraikitzea ez da batere erraza. Are gutxiago, atzean utzi nahi izan duzun leku berean egitea eta iraganeke oroitzen mingotsek bonbardatzen zaituzten bitartean.

Istorioaren erdigunean Sam dago (Bridget Everett), ahizpa hil ondoren, hilabeteak galdua daramatzan emakumea; bi-zi den herrixkan etorkizunik ez duela uste du, ez da eroso sentitzen bere familian eta ez du gaintitzen galeragatik dolua. Baina lanean Joel eta bere lagun taldea ezagutzen ditue- nean, ikuspegi ezkor hori aldatzen hasiko da.

Zergatik ikusi beharko zenuke proposamen hau? Lehenik, Bridget Everett-en interpreta- zio lana zoragarria iruditu zai- dalako, hunkigarria eta dibe- rigarria. Iraupen laburra duten zortzi ataletan, homofobia, al-

koholismoa, depresioa, gu- txiengoentzako gune segu- ruak sortzearen garrantzia, Ameriketako Estatu Batuetan hiri handietatik deskonektatu- ta bizitzeak eragiten duena, er- lijioak gizartean duen eragina, iragana onartu eta bizirik irau- teko beharra edota espero ga- beko adiskidetasun harrema- na sortzea zeinen zoragarria izan daitekeen mahaigainera- tzen du.

Succession

Laugarren denboraldia. Martxoak 27. HBO Max.

Maisulan honen azken denbo- raldia martxo amaieran iritsi- ko da. Telesail zoragarri honek agur esango digu betiko eta amaiera epikoa izango dela iragarri nahi dut. Baliteke ad- jektiboa abaildua egotea, bai- na “shakespearearra” izan li- teke istorio hau deskribatzeko egokiena. Pantaila txikiak gu- txitan aztertu baitu halako ta- lentuz drama klasikoetan age- ri diren obsesio horiek guztiak: familia, ohorea, bote- rea, odola, traizioa, tentazioa, errua...

Hirugarren denboraldia iri- tsi berri den honetan, ez zait gomendio hoberik okurritzen. Maisulana. Logan Roy eta bere




lau seme-alaben familia dis- funtzionalaren istorio korapi- latsua azaltzen du telesailak: munduko komunikabide eta entretenimendu enpresa na- gusietako bat kontrolatzen du familiak.

Arazoak patriarkaren oinor- dekoa nor izango den plante- atzen denean iristen dira. Hor- tik aurrera geldiezina izango den metxa piztuko da. Fami- liari, aberastasunari eta bote- reari buruzko ikuspegi oso en- tretenigarri, mingarri eta benetakoa eskaintzeaz gain, umore beltz ukituak dituen

melodrama paregabea irudi- tzen zait.

Lehen segundotik erabat ha- rrapaturik utziko zaituen ekoizpen zoragarria. Pertso- naia jasanezin eta gorrotaga- rriak baina era berean maita- garriak osatzearen meritua dauka Jesse Armstrong sor- tzaileak. Baina pertsonaia ho- riek ez ditu zentzurik gabeko atalen artean sartu, edota tra- ma hutsal batean, gidoi biribil eta sendo baten laguntza izan baitute, haien garapena txun- digarri eta ia perfektu bilaka- tzeko.





Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Nire barruko soziolinguista

Euskararen ezagutzak goranzko joerari eutsi dio Nafarroan». Nafarren laurdenek dutela euskararen ezagutzaren bat. Edo %12ak erabiltzen duela.

Zifra hotzak, eta gogoeta beroak atzetik. Ziklo aldaketak eta estrategia berriak eta, erabiliaren erabiliz, kamustu ditugun esamolde ederrak jarraian. Eta betiko eztabaidak: gazteek dutela errua, dena emanda jaso baina konpromisorik hartzen ez dutelako. Gurasoek dutela kulpaa, euskaraz haurrei eta zakurrei bakarrik egiten dietelako. Zonifikazioa putzu sakon eta ilun bat dela. Epaileak euskararen kontra daudela. Halaxe ariko gara, argudioak harriak bezala elkarri jaurtiz. Eta momentuko sukarraldiaren ondoren beste lubakiren batean lokaztuko zaizkigu gogo-gorputzak; parke eolikoetan edo bigarren etxebizitzetan edo eskola segregazioan. Itsasoan urak handi dira, murgildu nahi dutenentzat.

Burua borborka dudala atera naiz kalera. Euskaldun guztiok gorputzean daramagun soziolinguista inguratzen nauten ahotsek darabiltzaten hizkuntzak deszifratzen hasi zait. Konturatzerako, parean egokitu zaizkidanen profila erakia neukan: elebiduna hau, elebakarra hura, elebidun hartzailea bestea. Harik eta telefonoan dardara sumatu dudanean arte. Nire inkesta partikularra osatzen ari nintzen bitartean jo eta su aritu dira nire Whatsapp eta Telegram-eko taldeki-deak. Youtubeko bideoak,

artikuluak eta argazkiak; denetik jaso dut oso denbora gutxian. Kale erdian geratu eta hor hasi naiz bata eta bestea arakatzeko, ez ditudala osorik irentsiko jakin arren; lehenengo hamar segundak asko jota, titularra eta lau lerro, argazkiaren azterketa panoramiko bat eta kito. Katuek adina bizitza izango banitu ere ezingo nuke jasotzen ari naizen informazio-oldea digeritu.

Edukiak partekatzeak daukagun antziaz eta mundu hiper modernoaren ajeez gogoetan ari nintzela nire barruko soziolinguista kilimaka hasi zait berriro. Kaleko jendeari pasatu dion galbahea pasatu die nire mugikorreko mezu, bideo eta artikuluei ere. Eta apenas azaldu den euskarazkorik. Bat-

batean, nire egunerokoaren tarta soziolinguistiko bat osatua zeukan. Hor agertu dira, kontzientziaz euskaraz ari ez naizen ordu horiek denak: sofaren erosotasunean irentsitako telesail britainiarra eta Interneten orririk orri egindako zeharkaldiak; erosotasunaren izenean gazteleraz egindako elkarriketak eta autoko irratiak isurtzen duen musika. Poliki-poliki nire esaldietan txertatzen ari diren makulu txikiak: “*ke fuerte*”-ak eta “*benga ya*”-k eta “*sinmas*”-ak. Etxe bat irudikatu dut, pixkana-pixkana hautsak eta gordioak eta huntzak eta sasiak irentsia. Eta inertziaren korrontearen indarraz hazten eta gizentzen ari den nire baitako erdalduna parez pare jarri zait begira, irribarrez. •



Inguratzen nautenak darabiltzen hizkuntza deszifratzen saiatu da nire barruko soziolinguista.

Aritz LOIOLA | FOKU

{ koaderno } Iker Barandiaran

Baloia norantz?

Lagun batek ohitura du, aspalditik, Espainia barnealdeko herri batera joan eta han yoga eta meditazio kontuak lantzeko egonaldiak egiteko. Sarri joaten da eta hara joatea beharrezko duela dio. Hala ere, egonaldi horietatik bueltan beti bezain urduri eta egoskor aurkitzen dut. Ez ote dion hangoak irakaspen iraunkorrik eskaintzen. Beste tamaina batean, ziur orri hauek irakurtzen ari den beste lagun batek lehen ohitura zuen, asteko estresa kentzeko, alabarekin batera igerilekura joateko, baina aitortu zidan gehienetan handik are eta estresatuago irteten zela.

Ni orain beste fase batean nagoela esango dut. Besteak beste, kontzertuetara joateak laguntzen dit egunekoko presa, estres eta nahigabeetatik arnasa hartzen. Eta duela gutxi, uste baino gehiago luzatu zen kontzertu batean, topo egin nuen aspaldiko lagun batekin. Gogoan dut, aita bilakatu zenean, horren ardurak gain egin ziola eta etsita bizi zuela, horrek gauza asko ez egitea eragiten ziolako. Orain, urteak pasatu ondoren, seme-alabak nagusitu baitira eta askeago biziko zirelakoan, gai horretaz itaundu nuen, erantzuna baikorragoa izango zelakoan. Baina, hara! Aitortu zidan orain are eta estuago bizi zela asteburuetan ere seme-alabak kirol hitzordu ugaritara eraman behar izaten zirelako. Horretan egoera antzekoa daukagu bai berak bai nik, izan ere, biok tril egin genuen unetik ordu batzuetara, partidak zituztelako bion umeei. Aldatzen dena –eta finean gehien eragiten diguna– horrekiko jarrrera da.

Arrazoia du lagunak esaten duenean gorrotagarria dela asteburuetan ere goiz jaiki beharra, nik ere zinez gorroto dut, baina zer egingo dugu bada, haiek gustura badabiltza! Gizalegea den moduan, haiek ahal den guztian babestu eta lagundu behar ditugu. Eta, ondorioz, ez naiz ni orain arte inoiz baloi bati hainbeste

denboraz begira egon. Jakina, atzera egiten dit ‘kirol erregea’ deritzon horren inguruko debozio gehiegizkoak zein edozein pulpito eta gainean daudenek, baina onartu beharra dut kirolak, oro har, umeengan duen eragina eta onura oso positiboak direla. Eta, zer arraio, gainera, asteburu goizetako ordu txiki eta tenperatura hotz horietan aspaldi ikusi gabeko ezagun eta lagun dezente berreskuratzen ari naiz, behintzat bizi garela egiaztatzeko eta elkarri barre egiteko. Kar kar.

Txikiak dira semeak oraindik eta futbola –kasu honetan– izugarrizko pasioz bizi badute ere, ez ditut oraindik zapaltzen ditudan zelaietako harmailetan nagusiagoen kasuan ematen diren jokaera nazkagarri horiek ikusi, nahiz eta inguruan –uste baino hurbila-

Argi dago. Jendeak, gizateriak, barne ezinegona, estresa eta frustrazio ugari askatzeko beharra du, premiazko beharra. Baina horretarako badira indarkeria hutsal gabeko moduak

go– badiren. Zer zentzu du umeen partidetan nagusiki elkarren aurka irainka, gaizki esaka eta indarkeria azaleratzen ariteak? Eta, jakina, zer eredu ematen ari gaitzaizkie haiei? Nolakoak izatea espero dugu gero?

Gauza bera esango nieke gure auzuneko garajeetako komunitatean irainka, mehatxuka eta mesfidantza eta giro txarra sortzeko asmoz ahalegin sutsuan ibiltzen direnei. Zer nezesidade? Borondate onenarekin egin beharreko ardurak hartu behar dituztenei bizitza zailtzea? Zeren truke? Zeren alde?

Argi dago. Jendeak, gizateriak, barne ezinegona, estresa eta frustrazio ugari askatzeko beharra du, premiazko beharra. Baina argi eta garbi erakutsi behar diegu horretarako badirela indarkeria hutsal gabeko moduak. •

EUSKARAZKO KOMIKIA

2022a urterik onena izan da, kopurua bikoiztu baita kalitateari eutsiz

 **KULTURA** / Maider IANTZI GOIENETXE

Igor Leturia komikizaleak Eibar.org-ko bere E-gor blogean idatzi zuen artikulua bat du abiapuntu erreportaje honek. Kalitateari zein kantitateari begira, 2022a euskarazko komikigintzaren «urrezko urte» izendatzen zuen bertan. Horren irakurketa egin dugu Leturia bera, Ainara Azpiazu Axi «Utzi Azalari» nobela grafikoaren sortzailea, Julen Gabiria «Maus» euskarara ekarri duen itzultzailea eta Iñaki Otamendi Komikipediaren egilea lagun hartuta.

Euskarazko komikigintzaren urterik onena izan zen 2022a. Hala baieztatu zuen Igor Leturia Azkarate komikizale eta informatikariak E-gor bere blogean. Komikipediak erregistroa gordetzen duenetik (hau da, 2000tik) ez da parekorik izan, ezta 1980ko hamarkadako urrezko urteetan ere. «Goza- men hutsa, komikizale eta euskaltzale garenontzat».

Mende honetan etengabe-koa izan da goranzko joera: lehen hamarkadan 10 komiki- tik behera ateratzen ziren, bi- garren hamarkadan 20tik go- rako kopuruan egonkortu zen, eta azken bost urteetan 30 baino gehiago izan dira. Bada, iaz 67 izan ziren. Gainera, sor- kuntza propioak eta kanpoko lanen itzulpenak maila berean goititu ziren.

ZERGATIK GERTATU DA?

Leturiarentzat «harrigarria» izan da kopurua bikoiztea, «ez baita erraza». «Azken urteeta- ko gorakada horrek prestigio bat eman dio euskarazko ko- mikigintzari, eta gero eta jen- de gehiago animatzen da: ko- mikigileak, argitaletxeak zein itzultzaileak». Aurten 40 argi-

taratzen badira, kopuru polita izanen da, bere ustez. Zantzu positibo batzuk badaude 2023 hau ere urte ona izanen dela aurreikusteko. Dozena bat manga iragarri dituzte, adibi- dez. Orain arte ez da arrakasta handiko komiki mota hau eus- karaz izan eta 2022 amaieran hiru atera ziren.

Iñaki Otamendi
Komikipediaren egilea,
Koldo Mitxelena
kulturuneko komikitegian.
Gorka RUBIO / FOKU



Nabarmentzekoa da euska-razko komiki kopurua bikoiz- tu dela kalitatea mantenduta. «Obra on eta oso onen propor- tzioa aurreko bera izan da, eta lan bikainak izan ditugu». “Amair! Libera State”, “Natas- ha”, “Orreagako kronikak 2 - Munjoie!”, “Utzi azalari”, “Lur- binttoko ohoinak”, “Ni ez naiz Mikel Laboa”, “Subnormala”, “Iratxo txikia eta shatranj par- tida”, “Inoiz ez 2 - E eguna” eta “No sleep till Shengal” dira adibide.

MUGARRIAK

Mugarriak izan diren gauzak gertatu dira. Art Spiegelma- nen “Maus” euskarara ekar- tzea hagitz garrantzitsua da, mundu mailan komikirik one- netakoa eta goraipatueneta- koa delako. Komikigintza arlo- ko sari garrantzitsu guztiak irabazi ditu: Angulemak Azo-

kakoa, Eisner, Harvey... baita kazetaritzako Pulitzerra ere.

Spiegelmanek (1948an Stockholmen jaioa eta New Yorken hazia) aita juduak Ale- mania naziko kontzentrazio- esparru batean bizi izandakoa kontatzen du. Aitarekin duen erlazio gatazkatsua ere jorra- tzen du. Komikian naziak ka- tuak dira eta juduak, saguak.

Julen Gabiriak euskaratu eta Astiberrik argitaratu du 1986an plazaratutako klasikoa.

Galdakaoko itzultzailearen iritziz, aurreko urteetatik da- torren lanaren ondorio da 2022ko igoera handia: «Xabi- roi aldizkariak egin duen lana, aleka-aleka liburuak sortuz. Harriet Ediciones ere hor da- go. Eremu bat landu da, horrek ekarri du. ‘Bikoteka’ deitzen den tailer bat egiten da idazle bat eta marrazkilari bat elkar- tzen dituen, eta hortik ere emaitzak sortzen dira».

EMAKUMEZKOEN IGOERA

Komikien egiletza osoa kon- tuan izanda (autoreen artean proportzionalki banatuta), 67 komiki horietako 19 egin di- tuzte emakumeek (%28) eta 26tan izan dute parte hartze- ren bat (%39). Bertako produk- zioa soilik kontuan hartuta, zenbakiak zertxobait hobeak dira: %30 eta %44. Leturiak dioenez, ez da gutxi propor- tzioa aurreko urteekin konpa- ratuta mantendu ez ezik zer- bait igotzea, kontuan izanik kopuruan izandako igoera handia.

«Komikigintza tradizional- ki gizonetzkoen mundua izan da oso, egile, gai zein pertsonaien aldetik, baina azken urteetan aldatzen joan da hori».

Oro har gertatu da hori, bai- na gurean, Komikipedia bali- tuta ikusten da euskarazko egileak %10ean ibiltzen zirela,

azken urteetan %20 inguru zirela eta 2022an %30era hurbilduta, koska bat egin dutela gora. Kontuan hartzen badugu zenbat komikitan hartu duen parte emakumeren batek %44ra iristen dira bertako produktioan. «Ez da nahikoa, baina duela gutxi non ginen kontuan izanda hobekuntza oso positiboa da», azpimarratu du Igor Leturiak.

“Natasha” komikia esanguratsua dela aipatu du, gizon batek idatzia baita emakume protagonista bat hartuta. “Amaiur!-Libera State”, berriz, tradizionalki gizonena bezala hartu izan den gai baten ingurukoa da, baina emakumezko batek marraztua. “Black is Bel-tza” ere emakume batek egin du. «Gauza oso interesgarriak gertatu dira».

KANPOKO ARGITALETXEAK

Kanpoko argitaletxeek ere inoiz baino gehiago plazaratu dute euskaraz. «Beti izan da oso gauza puntuala. Azken hamarkadan urtero ‘Asterix’-en bat edo bi ateratzen aritu da Salvat, eta 2019tik ‘Tintin’-en bat edo bi Zephyrum/Trilita. Superpatataren komikiak ere ekarri dizkigu Bang-ek. 2022. urtean, aldiz, bederatzi lan atera zituzten kanpoko etxeek.

«2019an hori baino gehiago izan ziren, baina Superpatataren bederatzi zenbaki atera zirelako». 2022an, sei argitaletxek atera dituzte lanak euskaraz. Aipatutakoez gain, Panini, Hachette eta Ooso etxeek eman dute pausoa.

Leturiak oroitu du mende honetako lehen hamarkadan kasik ez zutela komikirik euskaratzen. «Kanpoko argitaletxeak ere euskaraz kaleratzen hastea interesgarria da. Bada sintoma bat. Euskarazko komikigintza azken urteetan

67

Mende honetan etengabea izan da goranzko joera: lehenengo hamarkadan euskarazko 10 komikitik behera ateratzen ziren, bigarrenean 20tik gorako kopuruan egonkortu zen, eta bost urteotan 30 baino gehiago izan dira. Bada, 2022an 67 izan ziren, aurreko urteko bikoitza.

2023

Aurtengoa euskarazko mangaren urtea izanen da. Harriet Edicionesek lerro editorial bat sortu du, eta zazpi komiki-saga plazaratuko ditu. Ooso Comics katalanak ere argitaratuko ditu. Euskaraz sortutako komikiak ere izanen ditugu: Mikel Begoña eta Iñaket bikotearen «Hiru etxe Santa Monikan» adibidez.



Ainara Azpiazu «Axi», «Utzi azalari» komikia aurkezten. Maialen ANDRES | FOKU

igoera nabarmenarekin zebilen, eta hori nabaritu egiten da, kanpokoak ere konturatzen dira, eta animatu. Eta probatzen dutenek jarraitu egiten dute».

UNIBERTSALA ETA PARTIKULARRA

Ainara Azpiazu Aduriz “Axi”-k “Utzi azalari” plazaratu zuen 2022an Doberarekin. Hona urte horretako tontorraren bere irakurketa: «Gero eta interes handiagoa sortzen duen arloa da komikigintza; ari gara animatzen pixkanaka bada ere komikietan datozen lanak irakurtzera, Euskal Herria ez baita oro har batere komikizalea izan. Oso friki eta bazterrekoa izan da komikia».

Gauza ezberdinak pilatu direla azaldu du. Garai batean “Ipurbeltz” aldizkaria egon zen, eta han ibilitako jendeak lanean jarraitu du. «Euskal Herrian egin da komikiaren aldeko apustua. Urte batzuetan zuloa egon da, eta orain, berriz,

lan asko atera dira. Bagaude belaunaldi batzuk kanpoan ikasi dugunak, komikia egitea modu naturalagoan jaso dugunak, eta hortik ere badator sorkuntza emari hori. Bestalde, jaurlaritzak sorkuntza bekak sortu ditu, eta urtero lau ale on sortzen dira hortik. Hori ere garrantzitsua da».

Oro har, emakume gehiago ari dira plaza hartzen, nahiz eta hor ibili diren beti. «Jendartearen isla da hori. Oraindik pila dago egiteko. Kirolean bezala gertatzen zaigu. Emakumeen zesta txapelketari ‘emakume’ hitza jartzen zaio aurretik; gizezkoenari, ordea, ez. Edo biei edo inori ez. Oraindik ere unibertsala gizonena da, eta gurea partikularra, nahiz eta pixkanaka pausok ematen ari garen», adierazi du hernaniarrak.

“Utzi Azalari” Doberak proposatu zion Axpiri Maialen Lujanbioren bertso gogoangarri batzuen inguruan zerbait egi-

teko. 2017ko Txapelketa Nagusian Irunen kantatutako kartzelako hiru bertsoak ziren. Parranda gau batean, ohekideak atzera egiten du trans pertsonaren genitalak ikustean, eta honen azalean jarrita aldarrikapen hunkigarria egin zuen.

«Prozesu luzea» izan da “Utzi azalari”. «Ez nekien oso ondo bertso horiek ardatz nola sortuko nuen eleberri grafiko bat. Ia marrazteak baino lan handiagoa eskatu dit gidoiak. Bertsoak bukaeran jarri nituen. Historia fikzionatuz lortu nuen pertsonaiak eta euren arteko lotura definitzea».

AITORTZA


Aitortu digunez, jada urruti gelditzen zaio lan hori. «Profesional bezala ilustrazioan aritzeak dituen gauza asko ez ditut ondo bizi, eta ez dakit horrekin jarraitu nahi dudana. Atzetik ibili behar duzu, ez dira ohartzen faktura horrek zer suposatzen duen, ordaintzeak

edo ez asko desorekatzen dizu la bizitza... Orain hausnartzen ari naiz: sortzailea beti izango naiz, baina ez dakit nire lanbidearen petoa jarri nahi dudan. Hamabost urte eta gero betekada sentitzen dut, lan baldintzek ez didate onik egiten, eta ez dut hori aldatuko. Iturgin, al baitari, psikologo, fisioterapeuta... beste ofizioetan begien bistakoa da zenbat balio duen zure lanak; gure kasuan, ordea, asko aldatzen da batetik bestera, bezeroaren arabera ere bai. Beti dago baldintzapen hori, eta lanean hasi aurretik lan txiki pila, higadura sortzen di datenak. Nekatuta nago».

«Ez dago sortzaileok sustengatzen gaituen estrukturarik, zama hori guregana dator. Herri honek ez dauka sortzaileok gaizki ez bizitzeko ardurarik. Pozik bizi zarenez ematen du prezio hori ordaindu behar duzula, baina ez da bizigarria. Kalte handia da herriarentzat sortzaileak ez zaintzea. Alternatiba atzerrira joatea da, han lan egitea; ilustrazioan ondo bizi den jendea ezagutzen dut. Euskaldunak gara, euskaraz sortu nahi dugu, baina horretarako sakrifizio potoloak egin behar ditugu», dio Axpik.

Komikigintzan aritzea eta emakume izatea are bazterrekoagoa da. «Zenbat jende eza gutzen duzu komikiak irakurtzeko ohitua duena, erosteko joera duena? Oso gustuko daukat komikigintza, potentzial handia du testua eta irudia batera lantzeak, narrazioa sortzen du binetekin, sekuentziazio bat dago, beste tresna batzuekin filmak egiten ariko bagina bezala jolastea da. Komikia lotua egon da gizonezkoen edukiekin, eta espazio bat dago hor esploratzeko».

“Utzi azalari” lanaren emaitzarekin pozik dago, baita



Igor Leturia, E-Gor blogaren egilea, informatikaria eta komikizalea. Jagoba MANTEROLA / FOKU

erantzunarekin ere. «Jende askok idatzi dit, artistikoki baloratzen dudan jendeak».

Orain martxa jaitsi behar izan du. «Proiektu askori ezetz esan diet, edo stand by gelditu dira. Sentitzen dut orain gorputzak eskatzen didala erritmo lasai bat, eguneroko errutina bat. Orain bideoklip bat, gero murla, jarraian komikia... hori zen nire bizimodua. Oso ederra da, baina gaitasun handia behar da, nekatu egiten zaitu». Elkarriketa egin diogun eguna izan du lehena martxa jaitsita, eta eskertzen diogu erantzutea. «Sormena beti pizten zait, gogotsu nago. Baina aldaketa bat behar nuela sumatu nuen aspaldi. Haserre, erretxinduta nengoen, eta hori ez da ona».

Soziologia eta Arte Ederrak ikasi eta ilusio handiz hasi zuen bidea, balio eta oinarri sendo batzuekin, baina gero eta oztopo handiagoak gainditu behar ditu eta une bat iritsi da non ez duen zentzurik. «Erakundeetatik ez bazaio arretarik jartzen, normala da.

Orain, globalizazioak duen indarrarekin, ez badugu geure kultura babesten, ez dakit jabetzen garen nora garamatzan: euskal identitatea, euskaldun izatea zer den asko lausotzen ari dira, eta horren ardura handia dute batzuek», egin du kritika. «Oso erromantizatua eduki dut, nire pasioa da, baina zergatik erromantizatu behar dut?».

KOMIKIPEDIA

İñaki Otamendi Komikipedia-ren egilea txikitatik izan da komikizalea. Bizitzako hainbat etapatan topatu ditu gustuko

obrak; euskal komikigintzaren arloan, “Ipurbeltz” eta “Napartheid”, eta gero Asisko Urmeneta, Mattin eta Zaldieroa jarraitu ditu. «Beti pentsatu dut Euskal Herrian komikigintza indartsua izatea ona dela. Egunerokotasuna islatuko duen arte bat beharrezkoa, positiboa eta, gainera, gozagarria da. Ez dut ikusten zaletasun isolatu bat bezala; zale eta sortzaileen arteko topaketak aberasgarriak dira», adierazi du andoaindarrak.

Hain zuzen, Intxaurrendoko komiki solasaldi batean komentatu zuten falta zela zer bait, modu antolatu, atsegin eta zuzen batean, zein komiki argitaratzen ziren jakiteko. «Abiadura bizian bizi garenez, telesail edo liburu bat agertu eta denbora gutxian ahazten da; nobedade zurrumbilo horrek jaten ditu sortzen diren hainbat lan».

Garbi izan zuen Otamendik ez zela bakarrik katalogoa izanen, komikien informazio osatua eta ahalik eta neutroena baizik: autorea, argitaletxea, marrazkilaria, gidoilaria, itzultzailea...

Horrez gain, wiki eredukoa izan behar zuen, edozeinek osatzeko, akatsak konpontzeko, eredu kolaboratiboak interesgarriak iruditzen zaizkiolako eta komikigintza ere ikuspuntu kolektibo batetik ulertzen duelako. Hala sortu zuen Komikipedia 2015ean.

Urtez urte argitaratzen diren komikiei buruzko informazioa txertatzen dute, eta atzera ere egin dute 2000tik euskaraz zein komiki argitaratu diren islatzeko. «Polita izan daiteke atzerago joatea, baina eskuragarri dauden komikiak erakusteari ematen diot lehentasuna». Lehenengo pertsona plurala eta singularra nahasten dituela ohartuta, ho-

Euskarazko komikigintzan, elkartegintzaren eta mugimendu sozialen lana ere inportantea da. Nabarraldek urtero komiki bat kaleratzen du; zenbait GKEk ere bai

«Xabiroi»-ren lana goraipatu du Otamendik: urtero album bat egiteaz gain, aldizkariak jartzen ditu gaztetxoek eskuetan eta sinergiak, sareak sortu komikigile eta idazleen artean

rri buruz galdetu diogu. «Komikipedia irekia dago jende berria batzeko; edozeinek idatz dezake edo nirekin harremanetan jar daiteke. Batzuek wikian idazten dute, baina ohikoagoa da emailez bidaltzea. Bakoitzak bere etxetik, trenetik, ahal duen lekutik egiten du. Ez da bakartia, baina ez da talderik sortu, ez dugu topaketarik egin. Kolaboratzaileak badira, gustatzen zaion jendea ere bai».

Autore eta argitaletxe batzuek informazioa bidaltzen diote, baina denekin ez du hartu-emanik. Komikigile eta editoreen erritmoak errespetatzea garrantzitsua iruditzen zaio, eta komikia liburu-dendan dagoenean jartzen du haren inguruko informazioa.

«Egia da pixkanaka komikizale, komikigile eta editoreen artean giroa sortzen ari dela. Hernaniko komiki azoka garrantzitsua da. Getxoko azoka topagune interesgarria da, eta Ziburukoan ere badute lekua komikiek». Horietatik ere elikatzen da Komikipedia.

KOMIKIGINTZARA ANIMATU

«Sortzaileak badauzkagu, argitaletxeak ari dira apustua egiten, irakurleak ere badaude, baina gehiago egon daitezke. Lotuta dago: zenbat eta irakurle gehiago, orduan eta obra gehiago eta hobeak. Animatu behar ditugu herritarrak komikigintzarekin gozatzeraz, istorio oso anitzak daudelako: barne mundua, abenturak, drama, umorea...».

Otamendiren ustez, ikasi behar da komikiak egiten eta irakurtzen. «Enkadrea, atzeko plano, zer dagoen ezkutatuta... Topaketek ere laguntzen dute». Iaz komiki bat izan zen salduenen artean Durangon: «Ni ez naiz Mikel Laboa».



Julen Gabiria, «Maus» handia euskarara ekarri duen itzultzailea.
Raul BOGAJO / FOKU

GABIRIA: «20 URTEZ IKASI OSTEAN, HAU ALDERANTZIZKOA IZAN DA, DESIKASTEA»

Julen Gabiriari heldu egin zitzaion “Maus” euskaratzeko enkargua. «Oso berezia izan zen, banekielako zelako liburutzarra zen, Astiberriren partez etorri zelako enkargua eta niretzat guztiz erreferentziazko argitaletxea delako eta, gainera, Harkaitz Canok proposatu ziolako Astiberriri nire izena. Ezin nion inondik ezetz esan». Gero jakin du urte aunitz zeramatzala Astiberrik liburu hau itzuli nahian eta modu zabalago batean komikigintzako klasikoak euskaratzen hasi nahian.

«Pertsonaia nagusiak hizkuntza gaizki erabiltzen zuela oso ondo gogoratzen nuen. Judu-poloniarra da, gerra bizi eta gero AEBetara emigratzen du, bere hizkuntza poloniera da, baina ingelesean integratu behar du. 30 urte inguru pasatu dira eta ez du lortu ingelesez ondo egitea». Liburuan bi plano daude: orainaldian pertsonaia hori bere semearekin ari da hitz egiten, liburuaren egilearekin. Pasarte horiek ingelesez dira eta hor gaizki moldatzen da. Baina iraganeko eszenak kontatzen dituenean ongi idatzita daude, poloniera delako hizkuntza. «Hori

euskarara ekartzea izan da erronka, jakinda fidel jokatu behar nuela jatorrizko obrarekin eta atzean irakurle bat dagoela, ulertu behar duena. Akats horiek koherenteak izan behar dute, bineten espazio murriztean kabitu behar dira, kontuan izanda euskarak espazio handiagoa hartzen duela ingelesak baino». Gustura gelditu da emaitzarekin. «Prozesu intentsoa izan da. 20 urtez itzultzaile aritu ostean, ikasiz, gehituz, lan hau alderantzizkoa izan da: desikastea. Pertsonaia bat sortu behar duzu bere moduan ondo egiten duena, baina irakurlearen begietara gaizki. Hizkuntza bat sortzea izan da, aditz taulak berregitea. Egileak berak dio hizkera hori dela liburuaren bihotza; hori itzultzailearentzat ate ireki bat da, gonbidapen bat, baina ezin duzu edozer egin, badaude muga batzuk eta muga nagusia niretzat irakurlearen ulermena errespetatzea izan da». “Maus” ez zuten aurkeztu, «klasiko bat delako eta beti agertuko zaizulako irakurlea bazara». Bestetik, hasieratik igarri du “Maus”ekiko jendearen gogo handia.

Azken-aurrena

Oihane
LARRETXE
DE LA GRANJA

Egon nahi nuen lekua hura zela eta ez beste bat sinetsita iritsi nintzen Komunikazio Zientzien fakultatera. Hasi eta gutxira, irakasle batek etorkizunean kazetari izateko asmoa zenbatek genuen galdegin zigun, paternalismoz. Urte asko igaro dira eta, geroztik, tarteka oroitut izan naiz anekdota harekin. Ez dakit gizon hura non dagoen. Badakit ni non nagoen. Eta zertan. Hainbeste maite dudan ofizioan. Zinez, hainbeste!

San Joan gau bezpera batean telefono dei bat jaso nuen. Ahots batek beste aldetik galdegin zidan ia batu nahi nuen GARAKo lantaldera. Froga gainditu nuela eta hautatua izan nintzela. Uda-

ra haren hasierak nire hurrengo etapa bitala osorik markatu zuen. Inflexio puntua izan zen erredakzio hau aurrenekoz zapaltzea. Hamalau urte igaro dira eta, orain, nire ibilbide honetan parentesi bat irekitzeko garaia heldu zait: kazetaritzaren beste itsaso batzuetan murgiltzera noa.

Familia sentitzen dudan hedabide honetan pasatutakoak oso urte emankorrak izan dira, etengabeko ikasketa da erredakzio bat, benetako eskola. Eta kazetaritzak garai zailak bizi dituen arren, baloratu nahi nuke zorionekoak garela. Badugu ofizio zirraragarri bat (argi itzalekin, noski), pertsona miresgarriak, errepikaezinak ezagutzera ga-

ramatzana. Gure ofizioa beste modu batera bizi ezingo genituzkeen beste errealitate batzuetarako pasaporte da. Gero dagokigu erantzukizunez eta mizmoz lantzea eta partekatzea. Honek ez baitu zentzurik beste aldean ez badago inor irakurtzeko.

Zorte handikoa izan naiz; irakaspen profesionalak zein pertsonalak ondo gordeta ditut. Gaiak zintzotasunez lantzea eta bihotza jartzea izan ditut irizpide; batzuetan asmatu dut eta beste batzuetan ez. Ez dakit hau azken artikulua den, nik nahiago dut esan azken-aurrena dela. Bihar eguzkia aterako dela badakit, gainontzekoa idazteke dago. Mila esker bihotzez. Ez adiorik! •

Babesleengandik babes gaitezen

Koldo SAGASTI

Gasteizko Zabalgana auzoko 16 urteko mutiko baten familiak gazteak pairatutako erasoa salatu zuen sare sozialetan. Nerabearen aitak azaldu zuenez, kalean patinetean zebilela, udaltzain bikote batek geldiarazi nahi izan zuen, nonbait, ibilgailuarekin zebra-bide bat zeharkatu zuelako, eta mutilak, beldurraren beldurrez, ihes egin zien. Uniformedunek motor gainean adin txikikoa harrapatu zutenean, lurrera bota eta, immobilizatuta zegoela, jipoitu egin zuten, baita sudurreko hezurra apurtzeraino jipoitu ere, halaxe egiaztatzen baitu lekuko batek grabatutako bideoak. Gerora, oihartzun zabala izan du umearen aurpegi txikitua

azaltzen duen argazkiak, eta asko izan dira erasoa jaso duenarekiko eta haren familiarekiko elkartasuna adierazi duten eragileak; besteak beste, auzokideen elkarteak, auzuneko ikastetxe guztiak eta hango gurasoen elkarteak. Hiriko alkateak, berriz, erasotzaileen errugabetsun-presuntzioaren aldarria egin eta jakinarazi du epailearen balizko ebazpena argitaratu arte kalean segituko dutela, armatuta, lanpostu publikoak bermatzen dien soldata kobratzen eta herritarren segurtasuna zaintzen.

Gertaera, pasadizo isolatua baino gehiago, gehiegitan ikusi dugun jokabide baten lagin bat besterik ez da; indar polizialen beste nagusikeria erakustaldi

bat; ia ziurtasun osoz, eta beste hainbatetan gertatu den bezala, zigorrik gabe geldituko dena. Gertatutakoak pentsarazi beharko liguke nork ote duen gure gizartean biolentziaren monopolioa, nork jarri ote dituen kalean eta nork armatu ote dituen ume babesgabe bati muturra txikitzeraino jotzeko gai diren bihozgabe horiek, zeinen interesak defendatzen dituzten eta nork babesten dituen.

Izan ere, gauza bat argi dago. Zabalganako haurrak ez daude seguruago funtzionario pistoladun horiek kalean solte dabiltzala. Eta, akaso, seguruago ibiliko badira, segurtasunaren zaindariengandik ahalik eta urrutien ibili beharko dute. •

*in*fraganti

DANIEL BURGI IGUZZKIZA

Daniel Burgi Iguzkiza kazetariak «Nuestros días contra la Covid» kronika liburua argitaratu zuen iaz, baina urte asko daramatza «freelance» jardunean. Zer idatzi, zein dokumental edo erreportaje egin bilatzen aritu da Burgi munduan barrena azken 15 urteetan. Norberaren hautua den neurrian, ogibide ederra omen da «freelance» kazetariarena, baina erraza ez: «Prekaritateak eta ziurgabetasunak jotzen gaituzte sarri».



Daniel Burgi Iguzkiza kazetaria,
Iruñeko kaleetan.
Iñigo URIZ | FOKU

Kazetaritzak, kontalari jardunak, ertzugari ditu. Non lan egiten den, nola, norentzat... Erredakzioko epelean gustura aritzen dira batzuk; epeltasun horretan hotz, arrotz, deseroso beste batzuk.

Daniel Burgi iruinsemeak 15 urte daramatza kazetari-tzan murgilduta (Iruñea, 1986). *Freelance* kazetaria da, berak hala erabakita, eta gustuko dituen gaiak landu eta horiei buruz idazten iraun du hamarkada eta erdi. Idatzi egiten du batez ere, baina ikus-entzunezko pare bateko gidoilaria ere izan da.

2008ko krisian kokatzen du bere hautuaren sorburua: «Urte hartan zaila zen lanpostu ziur bat lortzea erredakzio batean. Lantxo batzuk egin, sos batzuk bildu eta atzerrira joatea erabaki nuen, istorio bila», dio Burgik. Migrazioa, mugak, giza eskubi-deak eta tankera horretako gaiak ditu gustuko idazleak. Prekaritatea eta behin-behinekotasunarekin harreman estua duten gaiak: «*Freelance* jardunak berezkoak dituen bi ezaugarri, hain zuzen ere».

Madriilen urtebete eman zuen agerkari digital batean lanean, baina azkar egin zuen hegan. Groenlandiara egin zuen bidaia batek piztu zion barruko sua: «Josu Iztueta eta Ander Izagirrerekin joan nintzen, eta haien bizitzeko modu ez konbentzionalak lotu egin ninduen. Erreferente bilakatu ziren niretzat. Bizitza autentikoagoa daramatela esango nuke, eta niretzat inspirazio iturri izan ziren. Nire etorkizuna markatu zuen esperientzia izan zen hura».



Burgik hamabost urte daramatza “freelance” jardunean, bere gazi eta gozoeekin. Iñigo URIZ | FOKU

Bidaia hartako espiritua mantentzen saiatu da azken urteetan: «Gaztea zarenean, energiaz beteta zaudenean da halakoak egiten saiatzeko unerik aproposena. 40 urtetik gertu ez da hain erraza konfortzona horretatik aldentzea». Hausnarketa interesgarria bota du lan moldeei buruz: «Nire aita 40 urtez aritu zen metalurgia enpresa batean, eta esaten zidan egunero gauza ezberdinen bat egitea ahalbidetzen zuen ogibide bat edukitzea gauza ederra zela».

Hegan hasi zen, eta ez zuen lur hartu luzaroan: «Groenlandiatik bueltan Ander Izagirre-ekin egon nintzen Bolivian, meatzeetan lanean aritzen ziren umeei buruz idazteko. Buelatu ginen hara sarri ondoren». Afrikan ere ibili da, Latinoamerikan eta Asia erdialdean bezala: «Kirgizistan-en bizi izan nintzen zenbait hila-betez, bahitutako emakumeen ezkontzak ikertzen». Lan hura Gabriel Garcia Marquez kazetaritza sariko finalista izan zen. 2013tik 2016ra bitarte giza-la-

rrialdietako kazetaritzan murgildu zen, hainbat GKErentzat lan eginez: Nepalgo lurrikara 2015ean, Filipinetako tifoia 2013an, Afrikak jasan dituen goseteak... «Batez ere, migrazioaz, Europako mugei buruz eta behartutako desplazamenduez idatzi dut, Mediterraneoan sarri. Orain arazo hori etxean bertan daukagu, Bida-soa ibaiko mugan».

Onartzen du tartean behin beste hainbat lan egin behar izan dituela, sos batzuk irabazteko. «Etxetresna elektrikoen eskuliburuetarako testuak idaztetik hasi eta higiezinen agentzia baterako argazkiak atera arte. Denok egin ditugu gustuko ez ditugun lanak, baina, behintzat, nire balioak arriskuan jarri gabe».

Idatzizko kazetaritzaz gain ikus-entzunezko alorra ere landu du Burgik. “Las pelotaris” dokumentalean parte hartu zuen 2015ean, pilotan aritzen ziren emakumei buruzko ekimenean, eta 2020-21ean “Mendiak 1976” dokumentaleko gidolaria izan zen. Dokumental

horrek Mendi Film ekitaldiko sari nagusia lortu zuen.

ALDE EZKUTUA

Freelance kazetariaren bizitza ondo ezagutzen du Burgik, eta aho bizarrik gabe dio ez dela lan erraza. Zergatik, bada? «Erromantizismo begiekin begiratzen den lanbidea da, ogibidearen gauza onak goretsita, baina alde ez hain politak ere baditu. Autonomoa den edozein langilek bezala. Prekaritateak informazioaren kalitatea baldintzatzen du, eta baldintza horrek eragin zuzena du munduari buruz dugun ikuspegian, ditugun iritzietan».

Lan ziurrik gabe, kazetariak bere zorrotasuna eta independentzia galtzeko arriskua duela dio nafarrak: «Prekaritateak, ziurgabetasunak, kalitateari eragiten dio, eta azkene-rako, *freelance* kazetaria hautu bat egitera behartzen du: egiten duena egiten jarraitu edo lanbide ziurrago bat bilatu. Nahi ez dituzun lanak onartu beharra ere bai, ezezkoa eman ez gero lan gehiago ez emate-

ko arriskua dagoelako». Burgik berak tarteka zalantza asko izan dituela onartu du.

Pablo Gonzalez-en egoeraz oroitzeko ere baliatu du prekaritatea: «Kazetaritza egiteagatik dago kartzelan, urtebete pasa dagoeneko. Hori ere ziurgabetasuna da». Gonzalez-ek Euskal Herrian jaso duen elkartasun oldea *freelance* kazetarien artean oso ohikoa dela nabarmendu nahi izan du: «Gazte askok *freelance* kazetaritza lehiakorra dela uste dute, gure artean muturrekoka gabiltzala eskusiba onena nork lortu, eta ez da horrela. Lagundu egiten diogu elkarri, beti daukagu nori deitu gure zalantzak argitze-ko. Ez dugu lankidearen lana lapurtzen, elkarri lagundu baizik, eta hori daukagun altxor bakarretakoa da».

Freelance kazetaritza eta kazetaritza bera sinesgarritasuna galtzen ari dela adierazi du Daniel Burgik: «Gure lanengatik ordaintzen den prezioa gero eta apalagoa da, eta gure irakurleak ‘informazio-kontsumitzaile’ soil bihurtu ditugu paradigma-aldaketa rengatik. Komunikabide eta plataforma digital askok negozio bat dute; funtsean, masiboki bete behar dituzten eduki biltegiak izatera mugatzen dira, euren agenda sortu beharrean. Garrantzirik gabeko eduki merkeekin eta kalitate baxukoekin betetzen dituzte pantailak, eta horrela zarata ozeano bat sortzen dute. Eduki batetik bestera pasatzen gara hatza pantailan irristatuz, irizpiderik gabe. Horri kazetaria bera protagonista bilakatu dela gehitu behar zaio: *streamer-a*, bere egoa eta nartzisismoa elikatzen dituen kazetaritza baten gorakada batean gaude, eta kazetaritza hori gizarte osoaren porrota da, nire ustez».

Egindako analisi gordinen garbi utzi du ez duela negarti itxurarik eman nahi: «Nahi dudalako naiz kazetaria. Askatasun handia eman dit, nahi dudan moduan egin ahal izan ditut lanak, editore edo komunikabide handi baten babesik gabe, ondorio batzuk onartuz. Ziurgabetasun jakin bat onar dezakezu, baina ziurgabetasuna eta prekaritatea ezberdinak dira». Gaixotasun bat izan zuen pandemia aurretik, 2019an, eta autonomia zen neurrian babesik gabe sentitu zen erabat: «Ez neukan lan saririk bajagatik, lana egin ezin eta une gogorak izan ziren». Kazetaritzaren bi aurpegiak hartu ditu ahotan: «Egun batean sekulako proiektzio publikoa daukazu, eta hurrengoan alanbrean zintzilik zaude».

BI URTEKO LANA LIBURUA IDAZTEN

«Nuestros días contra la COVID» liburuarekin azaldu da kazetaria hitzordura. 400 orrialdeko liburua, bi urteko lana. Iazko udaberrian argitaratu zen, eta pandemiaren harago doan liburua omen da: «Liburuaren ardatza pandemian sortu zitzaizkidan galderen erantzuna da: pandemian lanean aritu den jendea, zaintzan aritu direnak, etxerik ez zuen jendea non zegoen, landa guneetako medikuak non zeuden...».

Nafarroako Gobernuak eskatutako liburua da, baina erabateko askatasuna eman zioten lana nahieran osatzeko: «Esan nien kronika bat izango zela, non ez ziren ez kargu publikoak, ezta politikariak ere agertuko. Kutsu sozial handikoa izango zela, jende arruntaren testigantzekin. Egile-liburua da». Bi inspirazio izan ditu liburua idazteko: Svetlana Aleksyevitx idazle bielorrusia-

rra bata: «Oroitzeak beldurra ematen du, baina ez oroitzea are larriagoa», da bere esaldi ezagunenetakoa. Aleksyevitxen aipua oroitzeko beharretik omen dator: «Liburua orain ere irakur daiteke, baina bost edo hamar urte barru, perspektibaz irakurtzeko ere aproposa izanen dela esango nuke». Bigarren inspirazioa John Steinbeck idazle estatubatuarra izan du: «Idazle batek miresten duenari buruz bakarrik idatz dezake», esan zuen hark.

Migrazioa, memoria historikoa, biolentzia matxista... Gai asko jo ditu kazetariak liburuan. Mohamed-en istorioa aipatu du: «Mauritaniatik ihes egin eta erietxeko maindireak garbitzen dituen mutila, pandemian errefuxiatu estatutua lortu zuena. Liburua jendeaz mintzatzen delako, ez pandemiaren». 40 elkarrizketa pasa egin zituen kazetariak, eta zenbaitzuekin behin baino gehiagotan elkartu zen luze.

Liburua bichoneta-rekin hasi eta bukatzen da, Nafarroan CO-

«Nuestros días contra la COVID» liburua argitaratu du; 400 orrialdeko bi urteko lana. 40 elkarrizketa pasa egin zituen. «Liburua jendeaz mintzatzen da, ez pandemiaren»

«Liburua orain ere irakur daiteke, baina bost edo hamar urte barru, perspektibaz irakurtzeko ere aproposa izanen dela esango nuke», nabarmendu du Daniel Burgik

VID gaixoak jasotzen zituen furgonetari eman zitzaion izen bitxi horrekin. Zehazki, Unai Beroiz argazkilariak furgoneta horretako langileekin egindako 24 orduko lan txandarekin. «Liburua Gobernuak furgoneta horren zerbitzua ixten duenean bukatzen da, funtsezkoa izan zen zerbitzua». Prekaritatea bueltan da Burgiren idatz luman; pandemian ezinbestekoak izan zirenak langabezian geratu ziren uea.

Burgik komeriak izan zituen liburua osatzeko. «Egon ziren uneak non pentsatu nuen ez nuela bukatuko. Entrega epeak gainditu nituen sarri, eta atas-

katuta egon nintzen askotan. Egitura finkatzea izan zen lan denetan zailena». Zirkulu itxurako egitura eman dio errelatoari: mina, galtzen dena, zaintzak eta egunerokora buelta. Argazki sorta benetan aberatsa dauka liburuak: «Argazkilaria ere banaiz, eta inguruko kideei aipatu nien aukera. Kide batzuk zenbait komunikabidek pandemian euren argazkiei emandako tratamenduekin ez ziren konforme, eta han eta hemen arakatzuz erretratu benetan interesgarriak topatu ditugu».

Urtebete pasatu da liburua argitaratu zenetik, eta kazetaria berrindartzeko ahalegin batean dabil gaur egun. Jendar-tearen gehiengoa bizi den konfort-gunera bueltatu da azken hilabeteetan, Nafarroako Gobernuan aritu baita ordezkapen bat egiten migrazioen politika sailean, komunikazio arloan: «Ondo etorri zait arnas pixka bat hartzeko. Beharrezko etenak dira, beti ezin duzulako korrika ibili hara eta hona. Estresak akabatu egiten zaitu. Lan txarrek jazartzen zaituzte, fakturek... Gelditu egin behar zara tarteka», adierazi du zintzo.

Lan hori bukatzeaz da, eta ideien, proiektuen makina abian jarri du kazetariak, dagoeneko: «Aurten lasai pasa tuko dut. Ondoren Kirgizistan aldera bueltatu nahi nuke, lehen aldiz egon eta hamar urte geroago, Sobiet Batasuna osteko espazioa dastatu berriro». *Freelance* kazetariaren ziurgabetasun egoerara bueltatuko du erabaki horrek Burgi. Konfort-gunearen gozoa dastatu ostean berriro alanbrean zintzilik egoteko grina esnatu zaion seinale. •



Egilea, pandemiaren inguruan argitaratu duen liburua eskuetan hartuta.

Iñigo URIZ | FOKU

Andoni URBISTONDO



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Ezinezkoa dirudien hori

Zazpi urte nituenean ez nekien Gloria Steinem nor zen; ez nekien 60ko hamarkadan Emakumeen Mugimendu Liberalean egin zuen aktibismoari esker ezarri zirenik gaur egun emakumeok ditugun eskubide askoren oinarriak; ez nekien 1971. urtean “Ms. Magazine” sortu zuenik, feminismoaren perspektibatik istorioak kontatzen lehenengoetako aldizkaria; ez nekien 22 zituela izandako abortuak eman zionik ostera abortuaren aldeko erreforma legeen definizioan egin zuen lan guztia egiteko motibazioa; zazpi urte nituenean ez nekien emakume sindikalisten “Coalition of Labor Union Women” (CLUW) erakundea sortu zuenik eta gerora nolako eragina izan zuen genero berdintasunean (adibidez, gizon eta emakumeen arteko soldatetan ezberdintasuna murriztuz eta haurren zaintzaren inguruko politika aurrerakoia definituz). Ez nekien gerora aukeratu nuen ikus-entzunezkoen sektoreko ibilbide profesionalean ere izugarritzko eragina izan zuenik Steinemek egindako lanak: hain zuzen, 2005. urtean, Jane Fonda eta Robin Morganekin batera, “Women’s Media Center” sortu zuen, eta emakumeen perspektibak eta haien istorioak ikus-entzunezkoetan modu esanguratsu batean islatu daitezela lan izugarria egin dute.

Gaur egungo zazpi urteko haurrek, aldiz, Gloria Steinemen bizitzari buruzko liburu ilustratuak dituzte eskura, eta nire alabari ezohiko interesa piztu zitzaion Steinemi buruz.

Gauza batek beste bati bidea eman zion (laneko kontaktuak, elkarrizketa bat leku egokian eta une egokian eta beste), eta duela hiru aste Gloria Steinemen etxeko egongelan geunden, New York-en. Alaba eta biok. Oraindik ere une hark duen esanahia prozesatzen gabiltzala esango nuke.

«Ez gara lerro zuzenetan jartzen, biribilean esertzen gara»; hori esan du askotan Steinemek. Biribilean esertzen garenean denok gara-eta berdinak, ez dago hierarkiarik, ez da inor besteak baino gehiago. Denok dugu eskubide bera geure iritzia emateko, geure pentsamenduak partekatze. Denon artean sortzen dugun aniztasun horrek balio handia du.

Eta, han ginen, bere egongelako mahaia-
ren inguruan, solasean.

Egunen batean nire alabak hau irakurri eta bere bizitzako kapitulu honen esanahia denboraren perspektibatik ikusteko aukera izan dezan, hemen Steinemenen mezu batzuk:

«Zer jaso dut amarengandik?» galdera egin iezaiozue zuen buruari, ez gutxietsi erantzuna.

«Egin beharreko hori ez dagoela eginda adieraztea ezinbestekoa da. Zuzendaritza batzorde baten bileran aulkiak jarri beharko zenituzkete; aulki hutsak. Eta, gizon batek galdetzen duenean norentzat diren horiek, erantzuna garbia da: ‘Gela honetan falta diren emakumeentzat’. Egin esperimentu hori».

«Mugimendu guztiak urrats txikietatik hasten dira».

Azal beltzeko madonna bat genuen paretan zintzilik guri begira.

«Eleanor Rooseveltek egin zuena miresten dut. Ahotsik ez zuten haien lekuan jarri zen eta haien mezuak zabaldu zituen»

«Ezin dugu denbora pasatu geure artean distantzia jartzen duten gauzetan».


Steinemek bizitza “kudeatzen” duen erakundeak ondorengo leloa dauka: «Ezinezkoa den horrek sortzen digunak motibatuta». Ezin hobeto laburbiltzen du esperientzia. •



Irudian, Gloria Steinem erreferente feminista. WIKIMEDIA

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



RONAN PERENNOU URREIZTIETA FUNTSA

LUIS ARANARI EGINDAKO AZKEN ARGAZKIETAKO BAT

Luis Arana Goiri Abandon jaio zen 1862an. Anaia Sabinorekin batera, 1894ko otsailaren 18an Castejonen -Gamazoren dekretua bertan behera uzteko negoziatzetik Madrildik zetozen diputatu nafarrei egindako harreraren- lehen aldiz zabaldu zen ikurrina diseinatu zuen. Urtebete geroago, EAJren sorreran parte hartu zuen. 1915ean, bertako presidente zela, kanporatu egin zuten eta Eli Gallastegirenera eta antzeko sektore independentistagoetara hurbildu zen. Frankisten etorrera zela-eta 1936an erbesteratua, Lezo Urreiztietarekin bizi izan zen zenbait hilabetez Britainian eta Euskal Herrira 1941ean itzuli zen. 1951n hil zen. Artikuluak erakusten duen argazkia Luis Arana Goiriri egin zioten azkenetarikoa izan zen, joan den mendeko 40ko hamarkadaren amaieran Santurtziko bere etxean egina. Irudian, armarriez eta beste elementu batzuez gain, bi argazki daude horman zintzilik: bata, Sabino anaiarena, eta, bestea, Lezo Urreiztietarekin, Parisko aireportuan. Argazkiaren egilea Luis Aranaren seme bat izan daiteke. Irudi hau, beste batzuekin batera, Lezo Urreiztietak, jagi-jagi militanteak, independentista sakonak eta Luis Aranaren lagun handiak, utzitako ondarearen parte da. Urreiztieta Donibane Lohizunen bizi zen, eta Santurtziko etxera joaten zitzaion ezkutuan bisitatzera, eta, berak esaten zuen bezala, debozio berezia zion "ideiaren aitari".



GAUR8 *ireki gure leihoo*

